

# ASTELEHENKO Goienkaria

2008ko irailaren 1a > Astelehenetik VI. urteak > 200. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

“Barajasko istripuan kaltetutakoei laguntasuna ematea izan da gure zeregina”

Juan Ramon Barrena  
Gurutze Gorria > 06



## G2a

Txomin Amasorrain gogoratuz > 23

OÑATI  
Etorkinak gizarteratzeko egitaraua eta ludoteka, lehiaketara > 12

ATLETISMOA  
Aitor Eraña eta Marisol Ramos beteranoak, Esloveniatik bueltan > 19

ELKARRIZKETA  
Maide Unda borrokalaria bosgarren sailkatu zen Pekinen > 21

DEBAGOIENA > TURISMOA

## Udako bisitarien artean kataluniarrak izan dira nagusi

**ARRIKRUTZ** Udan 6.400 bisitari inguru izan dituzte Oñatiko kobetan; abuztuan 2.700 lagun eterri dira

**BERGARA** Promozio materiala zaharkituta dagoela eta, Bergarako Udalak material berria atera du

**BEHERAKADA** Aurtengo udan beherakada igarri dutela diote ibarreko ostattu eta jatetxeetako arduradunek > 03

ARETXABAleta > HONDAKINAK

## Konpostajea bultzatzeko edukiontzia

Ekimen pilotua izango da; etzi aurkeztuko dute, Zaraia aretoan > 05

### Bergarako Irala kaleko itxura berria

2007ko urtarrilean hasitako Irala kaleko urbanizazio lanak amaitzear daude Bergaran. Hainbat etenaldi izan dituzte lanok eta egunotan azken ukituak egiten ari dira Amaral enpresako langileak, lanak egubakoitzera buktu ahal izateko. Oporretatik bueltan herritarrek Irala kaleko itxura berriarekin egin dute topo, hiri tresneria jarri dute-eta abuztuan. Lanek 1.379.000 euro inguruko aurrekontua izan dute. Iralako hainbat dendari haserre daude denbora guzti honetan lanek sor dizkieten traba eta kalteengatik. > 09



AZKEN UKITUAK Jo eta ke ari dira egunotan lanean Irala kalean, lanak egubakoitzera amaitu ahal izateko.

JOSETXO ARANTZABAL

### AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08  
Elkarrikzeta > 09  
Iritzia > 10-11  
Gutunak > 12  
Herriak > 15-39  
Kirola > 40-41  
Kultura > 45  
Sailkatuak > 46  
Eskelak > 47  
Denbora-pasa > 48  
Gazteak > 50  
Komunikazioa > 51  
Telebista-Irratia > 52  
Non-zer > 54-55

### FUTBOLA > BELAR ARTIFIZIALA

## Azkoagainen eta Ipintzan zelai berriak dituzte

Hastear dagoen aurtengo futbol denboraldiari begira futbol zelai berriak estreinatuko dituzte Oñatin eta Bergaran. Oñatiko taldeek, gaur, astelehena, zapalduko dute lehenengoz Azkoagaineko berdegune berria. Orain arteko entrenamenduak Ibarran eta Mojategin egin dituzte Aloñako jokalariek. Hemendik bi astera

ekingo dio denboraldi berriari Josu Zubiaaren taldeak.

Bergaran, berriz, bigarren erregionaleko BTLS taldeak eta Bergara KEko azpiko taldeek era-biliko dute Ipintzako zelai par-tiduetarako. Lehen erregional mailan dagoen Bergara KEko nagusiak Agorrosinen jokatuko du, igoera lortzeko asmoz. > 15

SUPER AMARA

DENAK GUTXIAGO BALIO DU

BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea, 18 Bezeroentzako Aparkaleku

# Goienkaria

ASTELEHENeko  
astelehenean, aste bukaera osoa

# Harpidedunen txokoa

## Iraileko zozketa

**PARTE HARTZEKO**

**SMS 5533**

**harpidetza@goiena.com**

**Tel.: 943 08 10 50**

### Aquarium-erako sarrerak



Bidali AG SARRERAK 5533 zkra

### KAMISETA + POLTSA



Bidali AG KAMISETA 5533 zkra

### CD-IRRATIA\_STEREO



Bidali AG CD 5533 zkra

## AGko HARPIDEDUNENTZAT SOILIK

Oraindik harpidedun ez bazara, anima zaitez! Tel.: 943 08 10 50

## SARI NAGUSIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

**ARBELAITZ JATETXEAN  
BI PERTSONANDAKO AFARIA**

Zozketan sartuko dira: 08-07-22tik 08-09-25 ra jasotakoak

**Anbelaitz.**  
ARBELAITZ • DONOSTIA

# Kataluniarrak dira gehien bisitatu gaituztenak

**ARRIKRUTZEKO KOBAK** Udan 6.400 bisitari inguru izan dituzte Arrikutzeko kobek; amaitu berri den hilabetean jaso dira turista gehien han: 2.700 lagun

**BERGARAN MATERIAL BERRIA** Orain arteko materiala zaharkituta dagoela eta beraz, promozio materiala berritzea erabaki du aurten Bergarako Udalak

**OSTATUAK ETA LANDETXEAk** Aurtengo udan beherakada igarri dutela jakinarazi dute Debagoieneko hainbat ostatuetako eta landetxeetako arduradunek

MIRIAN BITERI > BERGARA

Bisitariak ibili dira azken astean ibarrean. Euskal Herri mailan gehien bisitatu gaituztenak gipuzkoarrak izan badira, Espainiari dagokionez, kataluniarrak izan dira aurten ere gure artean gehien izan direnak.

Arrikutzeko kobak, esaterako, 6.400 lagunek ikusi dituzte. Hilabete onena abuztua izan da, 2.700 bisitekin. Uztailan 1.600 bisitari izan zituzten eta ekainean, 2.100. Aste bukaeran egon da mugimendu gehien. Erreserben jatorriari dagokionez, 653 gipuzkoarrak izan dira eta 127 kataluniarrak. "Katalan asko ibili da, bisita asko katalanez egin ditugu", diote kobako arduradunek. Belgikar eta holandar nahiko ere izan direla azpimarratu dute.

Oñatiako turismo bulegokoek, berriz, kontsultetan beherakada "nabarmena" igarri dutela diote, "bereziki euskal herritarren eta espainiarren artean". Esan dute, baina, atzerritar asko izan dela herrian. Abuztuko lehenengo hamabostaldia ona izan dela eta hilabete osoan bisitetan 837 lagun izan dituztela ere diote.

Arantzazun oraindik ez dute datu zehatzik. Baino, azaldu dute nez, jende asko igo da, bereziki abuztuko azken astean. Hala ere, igarri dute dendako salmentak txikiagoak izan direla aurten.

Bergaran ere ez dute daturik. Baino, Turismo Bulegokoek esan dutenez, abuztuan jendea egon da herriko kaleetan. Gainontzeko herrieta gertatzen den bezala, kataluniarrak gehienak. Aurten, gainera, Gaztelako-Leongo jende asko hurbildu dela diote. Atzerriarei dagokionez, bisitari gehienak frantsesak izan dira; Belgikako eta Holandako turistak ere



Bisitari talde bat Arantzazuko inguruneak ikusten pasa den egunean, Pello Zabala lagun zutela.

iritsi izan dira gurean. Frantsesez eta ingelesez eman dituzte hainbat bisita. Egunotan bisitekin dihardute; herriko eta inguruokendako gehienak. Urriaren 5era arte luzatuko dira horiek.

Aurten, gainera, Turismoko Bulegoan banatzen den promozio materiala berriztatzea adostu du Udalak. Zehazki, eskuorri turistiko berria, txartel postal sorta eta Turismo Bulegoaren poltsa banatu da bisitarien artean.

**GATZAGAN ONDO**

Gatzagan ere gustura daude izandako bisitekin. Mugimendua egon dela diote Labidekoek. Gatzaren museoa izandakoak bereziki katalanak izan direla aipatu dute. Gaineratu dute egunotan oraindik bisitariak daudela herrian.

Landetxeen eta ostatuetan denetarik izan da. Bergarako Lamaño-Etxeberriko Maite Aristegi pozik dago, egun batuetan landetxea beteta izan dutelako: "Baina kosta egin zaigu, beherakada igarri dugu gehienbat deietan. Kataluniakoak eta Valentziakoak izan dira gurean; eta aurten, frantses gutxi". Aristegik dio bezeroak kexatu egin direla jateko toki askorik ez dutelako izan: "Kezkatzeko eta kontuan hartzeakoa da hori". Eskoriaztako Azkoaga-Enean, bestalde, pozik daude. Hotela %70era egon dela eta oso lanpetuta ibili direla jakinarazi dute.

Jatetxeetan ere denetarik egon da. Asko itxita egon badira ere, bakar batzuk zabalik egon dira. Tartean, Oñatiako Zelai Zabal. Hango arduradun Alberto Elortzak dio "tradizioz" duela jatetxea irekita eta gehienak "betiko bezeroak" direla. Mugimendu larregi ez duela izan esan digu.



**Lorena Ordoñez**

BILBO

Bilbon bizi bada ere, Ekuadorreko da Ordoñez. Egun pasa egin zuten egunean Arantzazun: "Familiarekin etorri gara; lehenengo Donostian egon gara eta gero Gipuzkoako barne aldera etortzea erabaki dugu". Ez zuten Arantzazu ezagutzen eta harrituta geratu dira. "Oso santutegi polita da. Gure herrialdean dagoen santutegi baten antza handia du eta horiaz, oroitzapenak ekartzen dizkigu. Inguruneak, gainera, oso politak dira", dio.



**Karmelo Atxutegi**

LARRABETZU

Joan den egunean bisita kulturala egin zuen Atxutegik, Kepa lagunarekin batera. Goizean Zumaia ikusi zuten eta arratsaldean, Arrikutzeko kobazuloak. "Euskal Herria ezagutzen eta ezagutza kulturalak sendotzeko etorri gara", dio. Gustuko izan ditu kobak: "Mendizaleak garenentzako oso interesgarria da ikustea lur azpian zer dagoen". Gomendatzeko moduko bisita dela ere aipatu du azkenik bizkaitarrak.



**Arantxa Arregi**

ANDOAIN

Gaur egun Aretxabaletan bizi bada ere, andoaindarra da Arantxa. Azaldu duenez, txikitatik du Arantzazura joateko ohitura: "Nire gurasoekin etortzen hasi nintzen. Santutegiko inguruneak hasieratik txundituta utzi ninduten, natura bera asko gustatzen zait-eta. Birjina bera ere oso gustuko dut, gure birjina delako". Urtean behin bisitatzen saiatzen da Arantxa: "Alde egiteko eta erlazatzeko gune ederra da. Lasaitasuna topatzetan dute hemen".

**OMU KERAMIKAK**  
zeramika • bainuak  
eraikuntzarako materiala

**BILTEGIA/BULEGOAK:** Meatzerreka 6 • Arrasate • 943 79 14 28 • Faxa.: 943 79 40 43  
**ERAKUSKETA:** Ignacio Zuloaga 4 • Arrasate • 943 79 07 20

**ERREPIDEAK** > GPS-ARENDAKO EIBAR ETA GASTEIZ ARTEKO AUTOPISTA AMAITUTA DAGO; BAINA ERREALITATEA BESTE BAT

# GPSak makina bat buruhauste sortu ditu Epeleko biribilgunean

Arazoak izan dira Epeleko biribilgunean, bidea ezagutzen ez zutenen artean

Nabigatzaileak ehunka gidari nahastu ditu; Eibar-Gasteiz autopista eginda dagoela zioen

**JASONE ZABALA** > BERGARA  
Arrasateko Epele auzoan, Eibar-Gasteizeko azken ordainlekuan, inoiz baino auto gehiago ibili dira, eta asko galdua gainera nora joan ez zekitela.

Ordainlekuatik Europako alde askotako autoak pasatu dira: Frantzia, Holanda, Erresuma Batua, Alemania, Belgika... Hauetako inor ez zetorren Debagoiena bisitatzaera; urrunago zihoazen guztiak: Magreb aldeera, Andaluziara, Madrilera edo Portugal hegoaldera. Gidari asko galdua ibili izanaren arrazoia erraza da: GPSak, AP-1 autopista, Maltzaga eta Gasteiz artekoa, amaituta balego bezala markatzen dielako, baina gero ikusten dute ez dela horrela. GPSak ez



Epeleko biribilgunean nahasketako asko eragin ditu GPSak.

JOSETXO ARANTZABAL

daki lan horiek urte beteko atzerapena daramatela. Oraindik 30 kilometro gelditzen dira egiteko eta beraz, autopista amaitzeko.

Horregatik, Europa aldetik datozenten gidariekin ez dakite nondik nora jo behar duten, nora ezean gelditzen dira beraien autoekin. Arrasatetik igaro den gidari madrildar batek zera adierazi du: "Gaizki ohitu gara, dena GPSaren bitartez egiten dugu eta ez ditugu errepideko seinaleak begiratzen. Azkenean galdu behar izan dut norabide egoikia topatzeko, zoratu beharrean egon naiz".

GPS egile askok AP-1 autopista amaitutzat eman dute eta nabigatzailearen mapetan sartu dute. Nabigatzaileak, AP-1 Marokora heltzeko bide laburrena bezala adierazten du.

**EGOERA NORMALIZATU NAHIAN**  
Egoera hau pixka bat konpondu nahian, bai ordainlekuetan eta baita Maxi Eroski ondoan dago biribilgunean -Gasteizko norabidean-, erabiltzeei zuzenduriko

oharrak ipini ditu Bidegi enpresak. Ordainlekuetan GPSak ematen duen informazioa egunerautu gabe dagoela adierazten zen, eta autopista egin gabe dagoela, beraz jarraitu behar duten bide zuzena zein den adierazten zaie. Eroski ondoko biribilguneko seinaleak berriz, gidariekin hartu behar duten norabidean lagundu nahian "Vitoria-Burgos-Madrid" dioen seinale bat ipini dute.

Pasa den urtean, antzerako zerbait gertatu zen, nahiz eta auto kopurua txikiagoa izan zen. Bidegitik adierazi dute, pasa den urtean Maroko aldetik aurten baino auto gehiago etorri zirela, eta aurten aldiz gehiago direla Europa iparraldetik datozen auto gidariak. "Beharbada magrebarrak eskarmentua hartu zuten joan zen urtean". Egoera pixka bat hobetu da eta galdua dabiltsan autoak ere gutxiago dira.

**ISTRIPUA**

## Arrasatear bat hil da Laredon istripuan

Familiak salaketa jarriko du anbulantziako gidariaren aurka

**JASONE ZABALA** > BERGARA  
Abuztuaren 25ean gertatu zen ezbeharrean Jose Maria Lezeta, 74 urteko arrasatearra larriki zauritu zen. Zauriak larriak izan ziren eta egubakoitzean, abuztuak 29, Santanderreko Valdecilla ospitalean hil zen.

Gertaera tristea pasa den abuztuaren 25ean izan zen, 10:30ean. Lezeta eta haren emazte Kontxi Ezkurra Nojatik Laredora anbulantzian zoazen Ezkurra zuen bihotzko arazo bategatik. Anbulantziak beste auto baten kontra talka egin zuen. Ondorioz, zaurituta geratuta ziren anbulantziako gidaria, lagun-tzailea eta beste autoko gidaria. Baino zati txarrena Ezkurra eta bere emazteak eraman zuten. Kolpearen ondorioz, anbulantziako atzeko leihotatik kanporatuak izan ziren senar-emazteak. Dirudienez anbulantziako gidariak ez zeukan halako autoak gidatzeko beharrezko baimenik.

Ezkurra Santanderreko Valdecilla ospitalera eraman zuten garun-hilarekin. Egubakoitzean, abuztuak 29, hil zen 11:30ean. Bestalde, emazteak Zainketa Intentsiboa-ko Unitatean (ZIU) jarraitzen du, eta larritasunaren barruan, pronostiko egonkorrekin dago.

**NOJAN OPORRETAN**  
Senar-emazteak udako oporrak igarotzen zeuden Nojan. Duela urte batzuetatik berta-ra joaten ziren uda aldiar. Ezkurra, duela 8 urte bihotz-tik operatu zuten. Lezetaren familiak adierazi du, anbulantzia gidariaren kontrako salaketa jarriko dutela.



Irudiko seinaleak gidariei lagundu die norabide egokia hartzen.

J.A.



**skunkfunk**  
people do funk  
[www.skunkfunk.com](http://www.skunkfunk.com)

Etor zaitez Iruña, Gasteiz edota Bilboko JUNGLEFUNK dendara eta ezagutu **SKUNKFUNK AW08** kolekzio berria

[www.skunkfunk.com](http://www.skunkfunk.com)



KALE AGERRALDIA > OÑATIN

# Gaztetxearen aldeko protesta ekitaldia

Asteburuan hainbat ekintza egin dituzte eta hurrengo aste bukaeran jarraipena izango da; gaztetxerik gabe daude eta hori salatu nahi dute

JASONE ZABALA > OÑATI

Abuztuaren 4an Ertzaintzak Oñatiako lau gazte atxilotu zituen San Martin ermita ondoan dagoen etxera sartu behar zirenean, okupazio akusaziopean; lapurreta egotzi zieten lau gazteei. Egubakoitzean epaitu zituzten, baina fisikalak oraindik ez du erabaki zigorra jarriko dieten gazteei edo ez; gehienez isun bat jaso dezakete. Horrela, Oñatiako gazte batzarrekoak gaztetxe gabe daude; uztailearen 16an, Otadui Zuhaitziko 1.zenbakiko etxea gaztetxe bihurtzeko egindako saiakeraren oste-

an – uztail amaieran kanporatu zituzten – San Martinekoia izan da hurrengo eta azken saiakera.

## PROTESTA EKINTZAK

Egoera horren guztiaren aurrean hainbat protesta ekintza burutu dituzte gazteek asteberu honetan, jasaten ari diren egoera salatzeko; datorren astean ere ekintza gehiago egingo dituzte. Zapatuan gazteek kanpaldia egin zuten San Martin ermitaren ondoan, ekintza horrekin lortu nahi zutena gaztetxea kanpora ateratzea da. Manifestazioa ere egin zuten

herrian zehar eta San Martinen bukatu zuten; ostean, batzar bat egin zuten jendeari bizi duten egoera azaltzeko. Gazte batzarrekoen asmoa gaztetxea edukitzea da, baina Udalarekin ez daukate harremanik. Gazte batzarreko kideen arabera "Udalak ez du nahi gaztetxerik herrian, eta beraien bidea errepresioa da". Datorren astean ere beste ekintza batzuekin jarraituko dute.

Lourdes Idoiga alkateak, bitartean, bere iritzia eman digu: "Udala okupazioaren aurka dago. Herrian tokia dago talde guztien-dako; beraz, gaztetxea elkarlanean lortu behar den zerbaite da, herrian badaudelako beste talde batzuk eta ez dutelako bide hori erabiltzen. Okupazioa ez da izan behar hori lortzeko bidea".



Irudian, zapatuan gazte batzarreko kideek herriko kaleetan zehar egindako manifestazioa.

JOSETXO ARANTZABAL



Konpost bihurtzen den hondakin organikoa lorenzaintzan erabiliko da. GOIENKARIA

BIRZIKLAKETA > KONPOSTAJEA

# Konpostajearen alde, 18 edukiontzি

Ekimen pilotua izango da; horren aurkezpena etzi egingo dute Aretxabaletako kultura etxearen

## 18 EDUKIONTZI

Inaxio Garro Aretxabaletako alkateak adierazi duenez: "Guztira materia organikoa batzeko 18 edukiontzি jarriko dira herrian. Bestalde esan, Aretxabaletan orain arte 343 familiak eman dutela izena esperientzia honetan parte hartzeko, eta kopuru hori ahalik eta handiena izatea da gure helburua; birziklatzen kontzientzia sortu behar da jendearengan". Edukiontzি horiek erabili ahal izateko izeina emateko epea gaurtik hasi eta datorren hilaren 12ra arte egongo da. Izena eman dutenek, irailaren 18an, 19an eta 20an zera jasoko dute Arkupe kultura etxeen: informazio liburuxka bat, kaleko edukiontzি marroi irekitzeko giltza, hondakin organikoak sartzeko ontzia eta komposatzea.

Argibide gehiago nahi duenak 943 08 10 01 telefonora deitu dezake. Udalak adierazi du, dataren barruan izena ematen ez dutenek ezin izango dutela esperientzia pilotuan parte hartu. Baina esperientzia hori Gipuzkoa osora hedatzen dute-nean, gainontzekoek orduan izango dute aukera.

**Erosten jakin:**  
ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU

  
**EROSKI**  
*zurekin*

Abuztuaren 21ean, arratsaldeko lehenengo orduan azken urteotako hegazkin istripu

larriena izan zen Madrilgo Barajas aireportuan. Gipuzkoako Gurutze Gorrian arratsalde

horretan bertan jaso zuten laguntzera joateko deia. Gipuzkoatik eta Arabatik zazpi bolun-

tario joan ziren gau horretan bertan Madrilera, tartean Juan Ramon Barrena oñatiarra.

Juan Ramon Barrena > Gipuzkoako Gurutze Gorriko kanpo formazioko arduraduna

# "Familiei laguntasuna ematea izaten da lehentasuna, doluan lasai uztea"

XABIER URTZELAI > OÑATI

Gurutze Gorrian lanean zela harrapatu zion Juan Ramon Barrenari (Oñati, 1965) Barajasko gertaerak. Hemengo ardurak alde batera utzi eta Euskal Herritik joandako zapki voluntarioek egunean bertan hartu zuten Madrilerako bidea, gaez. Hurrengo goizean, 08:00etarako ifemak pabilioietan ziren.

Inork gutxik egotea gurako zukeen lekuak, zuek voluntario.

Bai, guri horrelakorik gertatu izan balitzagu ondo eskertuko genuke ondoan laguntasuna izatea. Horregatik joan ginen hara, eta lan hori egiteko urtean zehar prestakuntza jasotzen dugulako. Hala ere, oso gogorra izan zen.

**Zein izan zen zuen lana?**


Neurri batean polizia judicialaren eta familien artean bitartekari lana egiten dugu guk. Familiei ahal dugun neurrian lagundu: beste senitarteko batzuei gertaeraren berri eman, familia bakoitzak hegazkinean zenbat biktima zituen jakin, biktimen gaineko informazioa batu eta ordenagailuan sartu... Azken batean, identifikazioak lehenbalienean egin ahal izateko informazioa batu.

**Gogorra izango da egoera horretan lan egitea.**

Bai da gogorra, bai. Horrelakoetan laguntzera joaten garen taldeok argi izan behar dugu sufrizten dabiltzan familia horiendako gu kanpotarrak garela, eta euren sufrimenduan ahalik eta lasaien utzi behar ditugu. Gu ez gara inor euren doluan parte hartzen ibiltzeko, bestelako kontuak errazteko egiten dugu lan.

**Horrelako gertaeran psikologoek laguntza handia emanen dute, baina mina txikitzea ez dago hagaxka magikorik.**

Ez dago, ez. Alde horretatik, orain dela urte batzuk Biescaseko kanpinean izan zen gertaeraren ostean ondorioztatu zuten medikuen erantzuna ona izan zela, baina psikologikoki familiekin ez zela lanik egin. Hori ikusita, horrelako gertaeretarako asistentzia taldeak sortu zituzten. Eta, asistentzia talde horietan egoten dira medikuak, psikologoak, erizainak, koordinatzialeak... Euskal Herrian aitzindariak izan gara horretan.



Juan Ramon Barrena, atzo goizean, Oñatiako unibertsitatean.

JOSETXO ARANTZABAL

BOLUNTARIOEN LANA

**"Gu ez gara inor familien doluan parte hartzea; bestelako lanak errazteko gaude"**

Barajasko istripuaren ondoren, horrelako albiste txar bat jasotzerakoan zelan erreagzionatzen du gizakiak?

Normalean hiru edo lau fase izaten dira. Lehenengoa inpaktu fasea izaten da; hor, berri txarra jaso duena ikaratuta gera daiteke, edo barrezka hasi, edo

HUTSUNEA

**"Horrelako gertaera bat ez da gainditzen, baina egoera berriarekin bizitzen ikasi behar da"**

negarrez... Handik ordu batzuetara ezetzaren fasea etortzen da, ukazioa. Gertatu den hori gertaatu ez dela sinestea; biktimak ez duela hegazkina hartu, bizirik dagoela... Hurrengo fasesa aitortzaren fasea da, norberak onartzea gertaera hori benetako dela. Eta, azkeneko fasean egongo litzateke egoera berriarekin bizitzen ikasten ikastea, baina horretarako denbora behar da. Horrelakoetan uste dugu gertaera latz horiek gainditu egin behar direla, baina gutxitan gainditzen dira. Hau da, egin behar dena da egoera berriarekin bizitzen ikasi, hutsune horietara moldatu.

KOMUNIKABIDEAK

**"Egunkari batzuk hilotzen argazkiak atera zituzten; zertan laguntzen du horrek?"**

teke egoera berriarekin bizitzen ikastea, baina horretarako denbora behar da. Horrelakoetan uste dugu gertaera latz horiek gainditu egin behar direla, baina gutxitan gainditzen dira. Hau da, egin behar dena da egoera berriarekin bizitzen ikasi, hutsune horietara moldatu.

Familiekin lan egin eta gero, psikologo eta bestelako boluntarioek ere terapia txikiak egin zenituzten.

Bai, guk ere sentimendua ditugulako. Hara joaterakoan argi izan behar da norbera psikologikoki ondo dagoela, hau da, kili-kolo egonez gero hobe etxean geratzea, hara lanera goazelako. Gainera, egoera oso gogorrak bizi izan genituen. Esaterako, gure taldean hamar familia izan genituen, eta familia horietako batek lau lagun galdu zituen: gurasoak eta euren seme-alabak; pentsa hori zer den.

**Komunikabide batzuen informazio gosea ere ez da oso lagungarria izan, batez ere familien-dako.**

Ez, hori ere egia da. Nik badakit gehienak fede onarekin ibili direla lanean, baina familiakoei ze sentitzen duten galdetzeko *alkatxoja-rekin* atzetik ibiltzea, edota norbaitek hegazkinetik mezu bat bidali zuela eta horren atzetik ibiltzea...

Kasu larriagoak ere izan ziren. Madril aldeko egunkariek hilotzen argazkiak argitaratu zituzten, Ifemako zoruan lerrotutu zeudela. Gu arduratu ginen senitartekoak pabilioi horietara ez eramatzen, hori ez ikusteko, eta zer eta gero egunkarietan argitaratzeko. Zertan laguntzen du horrek?

**Eta horrenbeste politiko aurrera eta atzera ibiltzeak ere ez du lagunduko.**

Hori ere parafernalia ederra, argazkian azaldu beharra. Zapatero, Raxoi... Kasuren batean biktimen batzuen familiakoei argi esan zuten ez zutela errege-errengarekin egoteko gogorik, eta bizkartzainei abisua emanda, hori ondo errespetatu zuten. Edonork du eskubidea dolua intimitatean egiteko.

**Esperientzia gogorra izanda ere, alde aberasgarria izan duela adierazi duzu lehenago. Zer ikasten da horrelako bizi-penetatik?**

Gauza asko ikasten dira. Geure arazo eta guzti ze ondo bizi garen konturatzeko balio du, gure familiak duen balioaz konturatzeko, lagunak, herria... Norberaren ondoan horrenbeste sufri-mendu ikusteak erakusten du minutu bakoitza bizitzeko dagoela. Abadea moduan egin dut berba, baina egia biribila da.

## oharrak eta deialdiak

OÑATI

### >1980an jaiotakoekin-kinto ospakizuna

1980an jaiotako oñatiarrek ospakizuna egingo dute irailaren 20an, zapata, Arantzazuko Sindika hotelean. 12:30ean batuko dira Aloña Mendi tabernan. Izena emateko, sartu 50 euro Euskadiko Kutxako kontu honetan: 3035 0005 32 0050044395.

BERGARA

### > Bainuetxea itxi egindo dute hilaren 8an

Udal Kirol Zerbitzuak jakinarazi du bainuetxea itxita egongo dela irailaren 8tik 21a arte, konponketak eta moldaketak egin behar dituztelako. Hilaren 15etik 21era, kirol eremu guztia egongo da itxita.

BERGARA

### >1942an jaiotakoek, Bilbora irteera

1942. urtean jaiotako berigarrek Bilbora irteera egiteko aukera dute irailaren 27an. Egitarau zehatz jakinaraziko dute antolatzaleek. Argibideak: 943 76 45 13 (M. Tere).

ANTZUOLA

### > Antzuolarrek, oporrik kontatzeko aukera

Udalaren eskuak, antzuolarrek herritik kanpo pasatutako oporrik kontatzeko aukera izango dute irailean eta urrian. Olaran etxeen. Horretarako, interesa dutenek Kultura batzordearekin jarri behar

dute, eta eurek emanaldia antolatuko dute. Kontaktua: [kultura@antzuola.net](mailto:kultura@antzuola.net) edo 943 76 24 62 zenbakia.

BERGARA

### > San Martin jaietarako, gazta-dastatze ikastaroa

Bergarako Udalak, urtero bezala, gazta-dastatze ikastaroa antolatzen du, San Martinetako gazta lehiaketara begira, eta irailaren 5a arte dago aukera izena emateko, kultura etxeen (943 77 91 59). Bergararrek dute lehentasuna. Ikastaroa irailaren 10ean izango da, 19:00etan, euskaraz.

ARRASATE

### > 1958an jaiotakoek ospakizuna egindo dute

1958an jaiotako arrasatearrek kinto ospakizuna egingo dute azaroaren 8an, Baster-Alde jatetxeen, eta dagoeneko badago izena emateko parada. Horretarako, 60 euro sartu behar

BERGARA

### > Gaur, astelehena, hasiko dira San Martinetako danborradetarako entseguak

San Martinetako danborradetan parte hartuko dutenek honako egunetan dituzte entseguak: gaur, astelehena, da lehenengo saioa, eta 2an, 3an, 4an, 8an, 9an, 10ean eta 11n, hurrengoak; umeek, 19:00etatik 20:00etara, eta helduek, 20:00etatik 21:00etara. Seminarioko patio estalian izango dira entseguak.

943 25 05 05  
[goinenkaria@goiiena.com](mailto:goinenkaria@goiiena.com)

dira Euskadiko Kutxako honako kontuan: 3035 0001 57 0010112788.

ARRASATE

### > Hainbat Interneteko ikastaro, KZgunean

Honako ikastaroak izango dira datozen egunotan: *Bat-bateko mezu-laritz* (eguaztena, hilak 3, eta eguna, hilak 4, 16:00-18:00); *Eustat* (eguaztena, hilak 4, 09:00-11:00), *Sinadura elektronikoa* (egubakoitza, hilak 5, 11:00-13:00) eta *Kontsu-mitzailea sarean* (egubakoitza, hilak 5, 18:00-20:00).

ARRASATE

### > Aiarako bailarara irteera, Abaroakoeak

Abaroa erretiratuen elkarteko baziakideek Aiarako bailarara irteera egiteko aukera dute irailaren 10ean. Orozkon, hamarretakoa eta Museo Etnografikoa eta gaztandegira bisitatzeko ditzute. Amurriion baziakaldo dute

eta, bueltan, Bilboko Guggenheim museoan geratuko dira. Etzi, eguaztena, da izenemate eguna, 10:30ean.

BERGARA

### > Interneteko ikastaroak aukeran, KZgunean

Ikastaro hauek dauzka egunotan: Interneteko ikastaro orokorra (gaur, astelehena, hasi eta hilaren 19a arte, egunero, 11:00-13:00 edo 18:00-20:00) eta *Sinadura elektronikoa* (eguaztena, hilak 3, 18:00-20:00).

BERGARA

### > San Martinetako txosna esplotatzeko

San Martin jaietan Udalak plazan jarriko duen txosna esplotatu nahi dutenek bihar, martitzena, dute eskaera egiteko azken eguna. Argibideak, Udal Kultura Zerbitzuan (Errotalde jauregia; 943 77 91 58/59).

ARRASATE

### > Goikobalu abesbatza entsezen hasiko da

Goikobalu abesbatzak bihar, martitzena, hasiko du ikasturtean. Saiolan eraikineko beheko pisuan egingo ditu entseguak, martitzetenetan (21:00-22:30), eta egunetan (20:00-22:00). Goikobalu Gaztek eguztenean hasiko ditu entseguak (19:00-20:30). Bide batez, arduradunek dei egiten dute Goikobalu Txiki (6-12 urte) eta Gazte (12-18 urte) taldeetan izena emateko.

## etxeko leihotik



Usoa Agirre > uagirre@goiiena.com

## Krisia, aldapa... zer da hori?

ritsi da gehienondako soldatapeko lanera itzultzeko eguna. Joan den astean ere hasi ziren batzuk lanean, baina gaur da irailaren 1a, egun handia. Gaur irekiko dituzte dendak eta bere onera etorriko dira gainerako zerbitzu guztiak. Gaur emango dituzte telebistako albistegietan opor-ondorengo sindromearen gaineko eta iraileko aldapari buruzko bideoak, horiek gaiditzeko aholkuekin. Urtero berdina izan ohi da; aldatzten dena da eskolarako uniformearen prezioa.

Iraila badatorrela eta onena bukatzean zegoela esan nion

"Urtero berdina: eskolarako uniformearen prezioa aldatzen da albistegian"

> Etxean. Antzuolan pasa dut abuztua. Hedabideetan, olinpiadekin batera, krisia handituz doala besterik ez dut entzun. Etxe aurreko aparkaleku hutsik egon da abuztuan. Orain etorriko da krisia askorendako.

> Geldi. Ahaztuta neu-kan abuztuan mundua gelditu egiten dela. Opo-rettara joan naizenetan ez dut holako sentsazio-rik eduki, baina aurten herria hilda ikusi dut. Bizirik irauteko onena festarik festa ibiltzea.

## debagoiendarrak kanpoan

Asier Elkorobarrutia > Gatzaga

## "Etxebitzitza aurkitzeko zaitasunak direla-eta utzi behar izan dut Gatzaga"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Herritxo batetik beste herri txiki batera egin du alde Asier Elkorobarrutia (Gatzaga, 1975), Gatzagatik Otxandiora, hain zuzen. Aldaketa-xikia izan dela pentsa genezakeen arren, baserritik herri txiki baterako jauzia handia dela aitortu digu. Egunero etortzen da Aretxabaleta, Fagor Ederlanen egiten baitu lan. Zaletasunen inguruaren galdetzerako orduan "korrika egitea" erantzundu, automatikoki, ia pentsatugabe. Izan ere, Asierrentzat ez dago mendira korrika egitera joatea baino plan hoberek.

Noiz eta zergatik utzi zenuen zure Gatzagako baseria Otxandiora joateko?

Ba, dagoeneko izango dira bi urte Otxandiora etorri nintzela. Nire asmoa Gatzagan bizitzea

zen, baina bertan ez dago apenas etxebitzitarik. Bestalde, baseria bertan bizitzeko egokitzea pentsatzen ere ibili ginenean, baina azkenean aukera hori bertan behera geratzen zen. Hala, Otxandiora joateko aukera ikusi nuenean ez nuen birritan pentsatu.

Zerk erakarri zintuen Otxandiotik?

Herri txikia, lasaia eta polita dela. Gainera, oso garrantzitsua den beste arrazoi batek ere eragin zuena izan zuen Otxandiora joateko; bertan bizi den jende mordoa ezagutzen nuela; hain zuzen. Honetaz gain, herri txikia bada ere, Otxandion Gatzagan baino gauza gehiago dago egiteko, zerbitzu gehiago daude-eta. Egia esan, Gatzagan ezer gutxi dago egiteko.



### Mendizale amorratua

Baserriko semea, mendizale amorratua da Asier Elkorobarrutia; gailurrera korrika igotzeko ohitura du, gainera.

Gatzagatik zer botatzen duzu faltan? Ba al duzu bueltatzeko asmorik?

Baserriko bizimodu eta giroa botatzen ditut faltan. Baserriak, lana mordoa emateaz gain, sekulako lasaitasun giro batean biziak ahalbidetzen du.

Hala ere, Otxandion oso guraso biziak eta hemen ere lasaitasunik ez zait falta. Hori bai, oraindik ezin dezaket betirako hemen biziko naizenik esan. Beraz, Gatzagako baserrira bueltatzea ez dut alde batera uzten.

Nolakoa da zure ohiko egun bat Otxandion?

Otxandion asteburuetan irtenen naiz eta hemen ere lasaitasunik ez zait falta. Hori bai, betebeharrik direla-eta, apenas egoten naiz kalean. Beraz, Otxandion bizi dudan egun normalak

aurreikusi ezin daitezkeen egunak izaten dira, aisialdira eta deskantsura zuzendutako egunak.

Nolako esperientzia izan da zure jaioterria utzi eta Otxandiora joatea?

Aberasgarria izan da oso. Urrutira joan ez naizen arren, etxetik irtetean beti ikasten da zerbait, jende berria ezagutu... Esperientzia positiboa izaten ari da, erabat.

Otxandion lagun dezente dituzu. Baina, zein egun gomendatuko zeniguke Otxandiora koadrila giroan joateko?


San Martzial eguna, zalantzarik gabe. Otxandiotako ermita ondoan pagadira joaten da herri osoa. Giro ezin jatorragoa izaten da bertan, lehiaketa gastronomiko eta guzti.

**kale inuesta****Abuztuan, herrian, behar besteko zerbitzuak egon direla iruditu zaizkizu?**

**Andoni Conde**  
Langilea  
Arrasate



**Txaro Andres**  
Langilea  
Arrasate



**Ricardo Azurmendi**  
Langilea  
Arrasate



**Elena Saiz**  
Langilea  
Arrasate

Abuztuaren 11ra arte egon ginen herrian eta jende gutxi zebilela iruditu zitzaidan. Denda eta taberna gutxi egon dira irekita. Uste dut, ideia ona dela Oñatin egin dutena; hau da, 600 euro ematea irekitzeagatik.

Jende gutxi ibili dela uste dut; eta, tabernak eta dendak ere itxita egon dira. Herria hilik dela esan daiteke. Bainak, normala dela uste dut; azken finean, dendariek ere oporrak hartzeko eskubidea dute.

Erdiko kaleetan tabernak irekita egon direla uste dut; baina, orokorrean denda gehienak itxita egon dira. Bestalde, udal liburutegia goiztan bakarrik ireki dute. Uste dut eskaintza hori hobetu beharra dagoela.

Burgos eta Arrasate artean pasa dut abuztua. Herrian, denda gutxi egon direla irekita uste dut. Nik, adibidez, Altamiratik herrira jaitsi behar izan dut erosketak egitera. Bainak, abuztuan normala da hori.

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 05

goienkaria@goienea.com

OÑATI

**> Udal zerbitzuen ordutegia abuztuan**

Oñatiako irakurle batek idatzi digu Udal zerbitzuen ordutegia dela-eta. "Ondo dago taberna eta dendarie 600 euroko laguntza ematea, baina, zer gertatzen da Udal zerbitzuekin? Kultura Etxea, adibidez, goizez bakarrik egon da zabalik eta abuztuan lan egin dugunok ezin izan dugu behar bezala erabili", azaldu du irakurleak. "Hortaz, enpresa pribatuak sustatu aurretik, Udal zerbitzu egokiak bermatzea eskatzen diot Udalari", gaineratu du.

BERGARA

**> Santa Marina plaza eta Boni Laskurain artean zebra-bidea**

Irakurle batek esan digu Santa Marina plazatik Boni Laskurain pasealekura joateko jendeak gurutzatzen duela; horiaz, beharrezko ikusten du zebra-bidea jartzea. "Ondoan dagoen zebra-bidea ez da nahikoa", gaineratu du irakurleak.

BERGARA

**> Labegaraietako kiroldegia itxita abuztu osoan**

Abuztuan Bergaran geratu den herritar batek deitu digu, haseurre. Kirol Zerbitzuko arduradunei zera galdu nahi die: zelaren posible abuztu osoan Labegaraietako kiroldegia itxita egotea? Herritar honen ustez, Bergaran geratzen direnei aisialdirako aukerak eman behar zaizkie eta lotsagarria iruditzen zaio kiroldegia itxita egotea. Hurrengo urtean gauzak beste modu baten egiteko itxaropena azaldu du gure irakurleak.

**usteak uste**

Xabier Urtzelai

**Heldu astelehenerari**

**A**stelehena, eta askondako lehenengo laneguna, ezinhobeto, hortan. Oin hasiko die egunkari/telebistikar urteroko opor osteko depresiōn gañeko reportajiekin -geuk be egin biherko dou zeozer...-. Lerro honeik idatzent hasi baino bost miñutu lehenau amaittu dot Juan Ramon Barrenari egindako elkarritzketie, eta arrazoie daukek Juan Ramon, abadier moduen egin dok berba: "Norberaren ondoan horrenbeste sufrimendu ikusteak erakusten du minutu bakotza bizitzeko dagoela".

Baiñe egi borobil da, hortan, itxi opor osteko negarrak datorren urterako -esate da errezena-, eta heldu astelehen hontako miñutu bakotxari, lantokixen egoteko bada be.

**I-1**

"Lanera bueltatzea ez da gaixotasuna. Aditu gehienetan ustez, oporrosteko sindromea mito bat baino ez da. Ez da inondik inora gaixotasuna, aldaketei egokitza bai zik. Eguneroko bizitza patologizateak dakin gizarteak eguneroko arazo asko gaixotsuntzat hartzea. Horrela gertatzen da oporrosteko sindromea deiturikoarekin"

El País > 2006-08-31



**E**gun gutxi urtean irailaren bata baino adierazgarriagorik. Urtearen mugari, laneko bizimodura bueltatzea agintzen digu. Oporretan amestutako proposamen berriei edo bizitza berri bat ekiteko eguna da. Hala ere, irailaren batean lanera bueltatzea ez da sindromea, nahiz eta bart gauetik eta gaur egun osoan umore txarrak sabela betetzen digun. Oporraldiaren ondoren irailaren batean lanera bueltatzea gauza on askoren seinale da, baina gizarte hedonista honetan, arrazoiaik parean ipini behar dizkigute konturatua ahal izateko. Hemen sei arrazoi, pellokeriak eman arren, benetan pentsatua irailaren batean zelabaiteko poztasun bat ematen dutenak:

1. Lana dugu. Lana egin beharra maldizioa da, bai, baina egin beharra dagoenez, maldizio handiagoa da lanik ez izatea eta irailaren batean INEMera txartela seilatzen joan beharra. Ez da kontu hutsala udazkenerako iragartzen diguten krisialdiari aurre egiteko.

2. Irakaslea bazara, plaza lortu duzunaren seinale, behar bada pasa den udaberriko oposizioak gainditu ondoren. Oposizio horietakoa ez bazara, zu, bi hilabete izan dituzu.

3. Lanerako edadea daukagu. Erretiratzen batek esan zidan, aho txikiarekin, inbidia piska bat ematen ziola lanean haste horrek, lan egitea gaztetasunari lotzen ziolako.

4. Arnaldo Otegirena bezalako kasuren batean baldin bazaude, abuztuaren bukaerararte ez ditzute lan egiten utzi. Egiteko ahalmena, askatasunaren seinale.

5. Bizitza ez da txantxetako: aurten udan ere guztiok izaten dugu lagun edo ezagun baten heriotzaren berri. Gurezako osteria bizitzak aurrera jarraitzen du, lanera joan beharra ere horren seinale da.

6. Oporretan opor egin baduzu, gurasoak, seme-alabak edo inguru maite baten gaixoaldia zaindu behar izan ez duzulako da. Sarritan pentsatzen dugu denok gabiltzala udan jai-jai, lagun asko dabiltzanean ospitaletan-eta ingurukoak zaintzen.

Alegia, ez dakiola inori otu opor on batzuk igaro ondoren sindromea duenik aipatzerik. Zilegi zaio, asko jota, birao bat-edo botatzea, lan egin beharra, ai!, gogorra delako, lagunak esan zidan moduan, zuk nahi duzuna egiteko egunean bederatzi-hamar ordu lapurtzen dizkizulako. Bainak gauzak horrela daude, hau Debagoiena da, eta hemen lan besterik ez dakigu egiten. Astelehena on, irailaren bata on.

**"Irailaren batean lanera bueltatzea gauza on askoren seinale da"**

**"Erretiratzen batek esan zidan inbidia ematen ziola lanean haste horrek"**

**Goienkaria**

Argiratzalea Goien Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Edu Mendibil **Erredakzioa** Jasone Zubala, Arantzazu Ezkibel, Xabi Urtzelai **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe Maketazioa Kepa Martelo Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzaran

**EGOITZA NAGUSIA**  
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12  
Posta-e: goienkaria@goienea.com

**ORDEZKARITZAK**  
ARRASATE 20500 Otañor Lizenziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12  
Posta-e: arrasate@goienea.com

**ARETXABAleta** 20550 Durango 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaleta@goienea.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09  
Posta-e: publi@goienea.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goienea.com  
Lege Gordailua: SS-0084/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale

**Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria**

Gipuzkoako  
Foru Aldundia



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria**

# Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13  
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> BERGARA  
Udaltzaingo zerbitzua egongo da zapatu arratsaldetan eta jai egunetan > 11



> OÑATI  
Etorkinen seme-alabak gizarteratzeko egitaraua eta ludoteka errentan emango ditu Udalak > 12



> LEINTZ GATZAGA  
Mendien bizia bermatzeko plana aurkeztu eta Dominagara doan bidea inauguratu dute > 14



Zapatuan egun osoz jardun zuten lanean Amaral enpresako langileek. Lanak 2007ko urtarrilean hasi ziren eta hainbat etenaldiren ondoren amaitzeko daude.

JOSETXO ARANTZABAL

BERGARA > HIRIGINTZA

## Irala kaleko urbanizazio lanak oraingo astean amaituko dituzte

### IRALA KALEA

Hiri tresneria jarri dute eta oporretatik bueltan herritarrek Iralako itxura berriarekin egin dute topo

### ZORTZI HILABETE

Hainbat etenaldiren ostean, lanak Gabonetan hasi zituzten berriz eta amaitzean daude

### EDU MENDIBIL > BERGARA

Jo eta ke ari dira egunotan Amaral enpresako langileak, Bergarako Irala kaleko urbanizazio lanei azken ukituak ematen. Lanak egubakoitzerako, irailaren 5erako amaitzea da asmoa. Hala adierazi digu Francisco Amaral enpresakako arduradunak: "Epe barruan gabiltza eta gauzak ondo badoaz aste honetan bertan bukatuko ditugu lanok". Egunotan 30 langile inguruk dihardute. Abuztu osoan izan dira lanean; zapatuan ere egun osoan jardun zuten.

Abuztuko oporretatik bueltan herritarrek Irala kaleko itxura berriarekin egin dute topo. Izan ere, lanak urtarrilean hasi bazituzten ere, abuztuan jarri dituzte elementu apaingarriak, zeresan ugari eman dutenak. Deigarriena, beharbada, jarritako farola altuak dira (*Hernandez* modeloa, 9 metro-

ko altuera dutenak); horrelako zortzi jarri dituzte. Era berean, beste sei farola txikiagoak (*Alura*) jardineren ondoan doaz eta beste lau *galaktiko* (*Nemo*) elkarren ondo-

an. Plazaren erdian, *Tower* izenekoak proiektoreak ditu, egun berezietaan piztuko direnak. Azkenik, Telefonicako aldapan *Thylia* modeloko beste hiru egongo dira.

### Txinatik ekarritako harria eta Irala kalearen protagonismoa danborrada egunean

Irala kaleko berezitasunen artean, Txinatik ekarritako harria dago. Bost harri mota daude kale osoan: granito galiziarra, galtzadarria (erromanikoa zein gorria), kareharria eta Txinatik ekarritako granitoa. Harri estimatua omen da Txinakoa: joan den aste bukaeran ezezagun batzuek lau *pale* lapurtu zituzten (50 m<sup>2</sup> inguru). Alacanteko biltegi batera jo behar izan dute lapurtutakoa ordezkatzen. Lanak, esan bezala, aste honetan bertan amaituko dituzte. Oraingo ez dago aurreikusita inolako ekitaldi berezirik. Edozein modutan, San Martineko danborradan Irala kaleak protagonismo berezia izango du. Bertan dagoen Zuloa elkartea 25. urteurrena ospatzen du aurten eta elkarteko martxa joko dute danbor-joleek Zuloa parean, San Martin bezperan. Danbor hotsak Irala kalearen itxura berria ospatzeko.

### FAROLAK ETA ARBOLAK

Farolak ez ezik, arbolak ere ez dira faltako Irala kale berrituan. Orain arte espaloia izan den tokian 20 zuhaitz jarriko dituzte, *Photinia*-k (hosto iraunkorrekoak) eta *Prunus*-ak (hosto erorkorrak). Jardineretan, berri, palmerak eta besotelako loreak aurreikusten dira eta Ormazabal Hotelaren parean beste bost zuhaitz, *Albizia*-k. Azkenik, lehengo Gasparreko garajeak ziren tokian egindako lokal berrien aurrean *Quercus* motako hiru zuhaitz landatuko dituzte. Aipatutako eraikin berriak hiru lokal komertzial jasoko ditu. BEB Arkitektoak SL-k egin du Irala kaleko proiektua eta lanek 1.379.000 euro inguruko aurrekontua izan dute. Iralako hainbat dendari, Sagarre elkartearren aldekoak batez ere, haserre daude lanek sor dizkieten kalteengatik.

**ARIZMENDI IKASTOLA** > ANTOLAKETA BERRIA 2008/09 IKASTURTEAN

# Batxilergoa egiteko aukera izango da San Viatorren

Viatoristei erositako eraikina berritu ostean bigarren hezkuntza osoa eskainiko du Arizmendik

Ikasturte honetan 400 ikasle inguru izango dira San Viatorren

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE  
Arizmendi ikastolak 18 urterako arte ikasketak egiteko aukera eskainiko du San Viator handi eraikinean. Horrek esan nahi du Arizmendik bi hezkuntza proiektu berdin izango dituela Debagoieneko bi herrian. Lehena Arrasaten, San Viator handi eraikinean, eta bestea Eskoriatzako Almen ikastolan. Izan ere, Almenen eraikineko eskaintza bere horretan mantenduko da.



Viatoristei erositako eraikina berritzen eta egoera berriera egokitzenten dihardu Arizmendi ikastolak.

JOSETXO ARANTZABAL

#### ASPALDIKO ESKAERA

Arrasateko hainbat guraso eta ikaslek aspalditik eskatu dutena beteko du Arizmendik ikasturte honetan. Eskaintza berri hone-

kin Arrasateko 16 urteko ikasleek Eskoriatzara joatera behartuta egon beharrean, herrian bertan jarraitu ahal izango dute euren ikasketekin. Bestalde,

orain arte Ferixalekuian izan diren ikasleak ere San Viator handi eraikinera joango dira, Ferixaleku Lanbide Heziketa eskainiko dute-eta.

**ABESBATZA** > GOIKOBALU

# Goikobaluko ateak zabalik daude musika eta abestea maite duen edonorentzat

Bihar hasiko du ikasturtea Goikobalu abesbatzak. Bestalde, 2009. urtea urte berezia izango da, 20. urteurrena ospatuko dute eta. Ospakizunetaz ezer gutxi aurrera daiteke oraindik

**J. B. > ARRASATE**

Amaitu dira oporrak Goikobalu abesbatzako partaideentzat. Heduak bihar ekingo diote entseguak, eta gazteentzat, ordea, etzi

hasiko da ikasturtea. Txikienentzat ez dute zehaztu ikasturtearen hasiera data. Entseguak, ohi bezala, Saiolan eraikineko behoko solairuan egingo dituzte.

#### ENTSEGUEAREN ORDUTEGIAK

Iñaki Maidagan zuzendari duen helduen taldeak bi entsegu egingo ditu astero: martitzenetan 21:00etatik 22:30era eta egunetan

20:00etatik 22:00etara. Gazteek entsegu bakarra egingo dute astean, Rakel Murgoitioren zuzendaritzapean; eguzkienetan 19:00etatik 20:30era, hain zuzen.

Hala, abesbatza taldeak "abestea gustuko eta musika maite duen" sei eta 12 urte arteko eta 12 eta 18 urte bitarteko edonor animatzen du bai, txikienen, gazteen zein helduen taldeetan sartzeko. Deialdia erabat irekia da, beraz. Izena emateko entsegutegara atertu edo 660 800 971 telefonora deitu besterik ez da egin behar.

#### 2009AN 20 URTE BETEKO DITU

Datorren urtean Goikobalu abesbatzak bere 20. urteurrena ospatuko du, eta, normala denez, konzertu eta ekitaldi bereziak antolatzeko ari dira. Oraindik ere ezer gutxi aurreratu dezakeen arren Goikobaluko kide Isabel Kirzek aditzera eman duenez, apirileko musikaldean *Requiem de Mozart* obra interpretatuko dute. Ziur beste hainbat sorpresa prestatuko dituztela.



Goikobalu Abesbatzak 20 urte beteko ditorren urtean.

ARTXIBOA

**UNIBERTSITATEA**

**MUKide,**  
ikasle ohi  
eta ikasleen  
arteeko zubi

MUKide egiten  
direnek ohiko  
ikasleen zerbitzuak  
erabili ahalko dituzte

**J.B. > ARRASATE**

Pasa den abuztuaren 21ean aurkeztu zuten MUKide proiektua, Mondragon Unibertsitatean ikasi duten ikasle ohiak begira eratutako proiektua. Hilabete askotako lanaren ondorioz jaiotako elkartea berri honen lehen helburua egungo eta lehengo ikasleen artean komunikazio sare bat sortzea da, bien artean zubi bat eraikitza, alegia. Honek ekonomia eta gizarte garapena sustatzeko sarea sortzea ahalbidetuko luke.

Honetaz gain, elkartea berriaren bitartez Mondragon Unibertsitateko ikasle ohiak unibertsitateko zerbitzuak eskuratu ahal izango dute, bertako ikasleak birlaran.

Lehen aipatu bezala, MUKide komunikazio bide garrantzitsua izango da lehengo eta oraingo ikasleen artean eta harreman horrek ekonomia eta gizarte garapen handiagoa lortzeko bidea emango du. Era berean, iritziak elkartrukatzeko topaleku ere izango da.

#### 8811 IKASLE OHIA

Gaur egun Mondragon Unibertsitateak, 8.800 ikasle ohi baino gehiago ditu eta foro berriari esker, unibertsitateko hainbat zerbitzu izango dituzte eskura ikasle ohiak ere; hala nola, webgune propioa, online zerbitzuak, argitalpenak, kirol zerbitzua, liburutegi zerbitzua eta informatika baliabideak, lan poltsa, unibertsitatearen instalazioak...

Duela 11 urte sortu zen Mondragon Unibertsitatea eta ordutik izan dituen fakultateen batetan ikasi duten ikasle guztiak dira unibertsitateko ikasle ohiak. Unibertsitate ikasketetik haratago ere, masterrak, gradu ondokoak zein ikastaroak egin dituztenak ere sartu ahalko dira MUKide elkartean.

Elkartea berriak, bestalde, sortua du logotipoa. Aaron Busca izan da irudiaren egilea.

Elkartean sartzeko biderrik errazenak [www.mondragon.edu](http://www.mondragon.edu) webgunea bisitatzea edo [MUKide@mondragon.edu](mailto:MUKide@mondragon.edu) helbidearen bitartez elkarteko arduradunekin harremetan jartzea dira.

SAN MARTIN JAIAK > GAZTA DASTATZEA, DANBORRADARAKO ENTSEGUAk ETA TXOSNAREN KUDEAKETA

# San Martin jaietako atarian hasi dira motorrak berotzen

Irailak 10, eguztina, gazta dastaketa ikastaroa egongo da Kultura Etxean

Danborradako entsegua ere gaur hasiko dira Seminarioan

JASONE ZABALA > BERGARA  
San Martin jaien ataria gaude eta dagoeneko ekintza batzuei eman zaie hasiera.

**TXOSNAREN KUDEAKETA**  
Horrela, esaterako, datorren irailaren 10ean ospatuko den gazta dastatzea parte hartzeko izen emate epea datorren egubakoitzera arte egongo da zabalik. Bertan izena eman nahi duenak ondorengo telefonora deitu dezake: 943 77 91 59. Ikastaroa irailaren 10ean, 19:00etan kultura etxeen izango da, doakoa eta euskaraz emango du Bittor Rodriguez bergararrak. Bestalde, San Martin jaietako txosna kudeatzeko eskaeria egiteko epea zabalik dago.



Irudian, nagusien danborrada.

GOIENKARIA

eta gaztetxoen danborraden entsegua gaurtik hasi eta datorren irailaren 11ra bitartean izango dira Seminarioko patio estalian. Haurrak 19:00etatik

20:00etara entseautuko dute, eta nagusiek, berriz, 20:00etatik 21:00etara. Bestalde, San Martin jaietako txosna kudeatzeko eskaeria egiteko epea zabalik dago.

Eskerak aurkezteko epea bihar, 13.30ean bukatuko da. Bertan izena eman dezake irabaz asmorik gabeko edozein entitate edo elkartek.

ARGAZKI LEHIAKETA

## Kirol Argazki Lehiaketa deitu dute

Udal Kirol zerbitzuak eta Pol Pol argazki taldeak antolatu dute

JASONE ZABALA > BERGARA  
Bergarako Kirol Argazki Lehiaketa Argizaiola lehiaketarako sailkatzen baliagarrria da. Oinarriak Agorrosin kirol gunean zein interneten kontsulta daitezke. Funtsezko oinarria da, noski, argazkian kirola ikusi behar dela, horixe da-eta argazki lehiaketa gaia.

**BI KATEGORIA**  
Laborategiko edozein teknika prozedura onartuko dute eta bi kategoria egongo dira: zuri-beltzean edo koloretako argazkiak. Lan kopuruari dagokionez, mota bakoitzeko lau aurkez daitezke, beste inongo lehiaketan saritu gabeak. Lau sari emango dituzte: hiru argazki onenei eta herriko onenari. Erabakia irailaren 13an hartuko dute eta sari banaketa 26an egingo dute. Argazki aukeratuak Aroztegi aretoan irailaren 19tik 28ra egongo dira ikusgai.

TURISMOA > ESKUORRI BERRIAK BOST HIZKUNTZATAN DAUDE ETA OSATUAGOAK DIRA

# Material turistiko berria kalean da

J.Z. > BERGARA  
Asmoa da orain arte zegoen material zaharkitua eguneratu eta zabaltzea. Bost hizkuntzatan dagoen eskuorriak, hiru postalez osatutako sortak eta turismo bulegoaren poltsak osatzen dute material berria.

Eskuorri berrietan informazioa osatuagoa da; betiko monumentuak agertzen dira, baina ikuspegia zabalagoa eman guran, beste era bateko informazioa ere agertzen da: auzoei, kultur ekitaldiei eta Agorrosingo spari buruzko eta tostoi eta errelleoen zein herriko jaien inguruko azalpenak adibidez. Errepideei buruzko informazio praktikoaren berri ere ematen da: hiriburekiko distantzia, errepide sare nagusia... Eskuorriaren bost edizio egin dira, bost hizkuntza ezberdinetan: euskarazko bertsioan 4.000 ale, gazteleraekoan 6.000, katalanez 3.000, frantsezez 3.000 eta ingelesez beste 3.000.

### POSTALAK ETA POLTSIA

Hiru postal desberdinez osatutako sorta ere kaleratu du Udalak, herriko txoko bitxi eta ederrene-



Bost hizkuntzatan kaleratu dute eskuorria.

GOIENKARIA

tako imajinekin, eta baita turismo bulegoaren poltsa ere, San Martingo plaza oinarri hartuta diseinatu dutena.

1.000 postal sorta kaleratu dituzte, poltsak berriz, 3.000. Udalak eskerrak eman nahi izan dizkiete material hau lantzen lagundu duten Benito Cantero eta Felix Idigoras argazkilariei.

### POSTALAK ETA POLTSIA

Mikel Elkorberezibar Bergarako turismo zinegotziak adierazi du materiala berriztatzea lehenengo pausu bat izan dela, baina gaineratu du, aurrera begira beste hainbat ekimen ere prestatzen dabilzala. Turismo plan bat egiteko asmoa ere azaldu du Elkorberezibarrek.

UDALA > UDALTZAINGO ZERBITZUA

## Udaltzaingoa lanean izango da zapatu arratsaldetan, domeka eta jai egunetan

J.Z. > BERGARA  
Bergarako Udaltzaingo zerbitzuak zapatu arratsaldetan eta domeka eta jai egunetan ere zerbitzua emango du herrian, orain arte ez bezala. Hain zuzen ere, orain arte astelehenetik egubakoitzera eta zapatu goizetara mugatu da zerbitzua. Urrikit aurrera, udaltzainen ordutegia zapatutan 06:00etatik 22:00etara artekoa izango da, eta domeka eta jai egunetan, berriz, 10:00etatik 22:00ak bitartekoak.

Udaltzaingoaren betebeharak orokorrean hartuta, zerbitzua zabaltzeko beharra ikusiten zuten herrian, baina batez ere trafiko ordenantzari begira ikusten zuten behar handiena Udalean.

### 24 ORDUKO ZERBITZUA

Helburua 24 orduko zerbitzua ematea izanik, hasiera batetan, zapatu arratsaldetan eta domeka eta jai egunetara zabalduko dute eta urrian eta azaroan artekoa.

zerbitzu horren beharren araberako hausnarketak egingo dituzte. Udal agintariez eta udaltzainez osaturiko mahaia eratuko dute horretarako, eta mahaia horrek zerbitzua beharrak baliabide pertsonal zein materialez hornitzeko beharrak aztertuko ditu; herritarren artean eta herrian bertan sortu daitezkeen beharren araberakoa izango da hori.

### UDALTZAINGO ZERBITZUA

Bergarako Udaltzaingo zerbitzua egun, 17 langilek osatzen badute ere, kopuru hori handitzea aurreikusten dute. Urrian hasiko da Udaltzaingoa zerbitzu zabalago horrekin, hau da, zapatu arratsaldetan eta domeka eta jai egunetan lanean. Ordutegiak hauetako izango dira: zapatutan, 06:00etatik 22:00etara arteko zerbitzu jarraia eskainiko du, eta domeka eta jai egunetan berri, 10:00etatik 22:00etara arteko.



Argazkian, iaz etorkinak gizarteratzeko taldean parte hartu zuten neska-mutikoak eta irakaslea.

MIREIA BIKUÑA

Lau urterako kontratua sinatuko dute bi zerbitzuak esleitzerao orduan. Interesatuek egubakoitza baino lehen egin behar dute eskaera

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Etorkinen seme-alabak gizarteratzeko egitaraua eta ludoteka zerbitzuak errentan emango ditu Udalak. Uztailoko osoko bilkuraren hartutako erabakia, abuztuaren 22ko Gipuzkoako Aldizkarian kaleratu zen. Hortaz, eskaerak aurkezteko epea zabalik dago hilaren 6ra arte. Bi zerbitzuak batera esleituko dituzte.

DEIALDIA > LAN ESKAINZA BIKOITZA

## Etorkinak gizarteratzeko egitaraua eta ludoteka zerbitzua, lehiaketara

BALDINTZA EKONOMIKOAK

Deialdiaren esleipena egiteko baldintza ekonomikoak eta teknikoak hartuko dituzte kontuan. Besteak beste, zerbitzu bakoitzaren ustiaketarako proiektuak; giza baliabideak; lan egingo duten pertsonen curriculumak eta titulazioa; esperientzia, eta euskara gaitasuna. Bestalde, udal bulegoetan zein [www.oñati.net](http://www.oñati.net) webgu-

nean ikusgai dagoen baldintza zerrrendan zehazten dira zerbitzu bakoitzean bete beharreko lanak. Alde batetik, ludoteka zerbitzuak 4 eta 12 urte arteko haurrei emanago die zerbitzua, eta jolasak eta ekintza ludikoak erabiliko dituzte, besteak beste.

Beste alde batetik, etorkinen gizarteratzeko programaren helburua Oñatira heldutako etorki-

nak herrian ahalik eta eperik laburrenean integratzen laguntzea da. Horretarako euskara maila egokia lortzeko, eskola porrotari aurre egiteko eta adin bereko neska-mutikoekin harreman naturalak izateko lan egingo dute.

Eslipena egin ondoren, bi aldeek lau urterako kontratua sinatuko dute.

## Foruen Enparantza ondoko argiteria konponduko dute

Foru Aldundiko Industria, Merkataritza eta Turismo saileko Merkataritza Zuzendariak ematen duen dirulaguntza erabiliko du Udalak plaza-korrontearen eta Portu kaleko argiteriak berritzeko. Hain zuzen ere, 74.860 euro jasoko ditu Aldundik: 26.572 korrontearen argiteria konponzuko eta 38.536 Portu kaleko argiteriarako.



ARANTZAZU EZKIBEL

UDAL ZERBITZUAK

## Gaurtik aurrera neguko ordutegia

Udal zerbitzuek ordutegi berriarekin egingo dute lan ekainera arte

M.B. >OÑATI

Udako oporrak bukatuta udal zerbitzuek, hain zuzen ere, kirolegiak, kultura etxeak eta udal bulegoak neguko ordutegiarekin zabalduko dituzte ateak gaurtik aurrea. Neguko ordutegia ekainea arte mantenduko dute.

Zubikoa kirolegian 07:30ean zabalduko dituzte ateak gaurtik aurrera, astelehenetik egubakoitzera. Etengabeko zerbitzua emango dute 21:30era arte. Aldiz, zapatuetan ordubete itxiko dute kirolegia. Hortaz, zerbitzua emango dute 09:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:30era. Bestalde, domeketan 09:00etatik 14:00etara zabalduko dute.

Kultura etxeko zerbitzuak egun osoko ordutegiarekin hasi dira lanean. Helduen liburutegia 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etatik 20:30era zabalduko dute. Ostea, haur liburutegiko ardurdunek ez dute zehaztu ordutegi berriarekin noiz hasiko diren. Bestalde, aste bukaeran, hilaren 5ean, 6an eta 7an hasiko dituzte zine emanaldiak berriro ere.

ZAPATUETAN ERE BAI

Uztailean eta abuztuan itxita egon ondoren, irailean berriro zabalduko dituzte udal bulegoak zapatuetan, 09:00etatik 13:00etara arte.

> JAIAK

## Danborrada nagusiko zozketa gaur egingo dute, 19:00etan

Irailaren 28an egingo duten danborrada nagusian danborro eta dantzari irten gura dutenen zozketa gaur egingo dute Errekaldeko lokalean, 19:00etan. Era berean, dantzarien entseguak, eguztenean, 20:00etan hasiko dituzte, eta danborreroen entseguak eguztenean egingo dituzte ordu eta toki berean. Bestalde, irailaren 20an egingo duten haurren danborradako entseguak bihar hasi, eta martitzenero eta egunero egingo dituzte, 19:00etatik 20:00etara. Bestalde, inude, gastadore eta sukaldariekin entseguak eguztenean hasiko dituzte.

ARETXABAleta > ERROMESALDIA

# Arantzazu bisitatuko dute gaur, astelehena, aretxabaletarrek

Eguerdian meza entzun ostean, baziak geratuko dira udalbatzako kideak nahiz Basotxok antolatutako autobusetan doazenak

**MIRIAN BITERI > ARETXABAleta**  
Betiko ohiturari jarraituz, gaur, astelehena, erromesaldia egingo dute aretxabaletarrek Arantzazuko santutegira. Esan bezala, urtero egiten den ekimena da hori, Arantzazuko amaren bederatzurrenaren barruan irailaren lehen astelehenean egiten dena.

Ohikoa den bezala, bi talde joango dira. Batetik, Udaleko arduradunak hurbilduko dira hara, batzuk oinez eta besteak autoz. Aurten, udalbatzako laukidek egingo dute ibilbidea. Ara-larretik hiru zinegotzi joango direla jakinarazi digu Inazio Garro alkateak; alegia, Araceli Herran, Joxe Angel Antxita eta Garro bera. Horiekin batera, Juanan Gutierrez jeltzaleak ere baiezatu du Arantzazura joan-

go dela. Ibilbidea oinez egiteko asmoa dute udalbatzako kideek. Goiz jaiki beharko dira eguerdirako Arantzazura iritsi gura badute. Irteteko hitzordua 07:45ean jarri dute.

## MEZA ETA BAZKARIA

Santutegian, 12:00etan, meza entzun ostean, udalbatzako kideak, parrokoarekin, udal idazkaria-rekin zein kontu hartzailearekin

eta udaltzain buruarekin batera baziak geratuko dira. Azken urteetan egin duten bezala, Zelai Zabal jatetxearen baziak dute.

Herritarra ere joango dira gaur Arantzazura. Basotxo erretilatuen elkartea autobusak antolatu ditu aurten ere horretarako. Udaleko ordezkariek egi-ten duten bezala, herritar horiek ere baziak geratuko dira santi-tegi ondoan.



Orain dela bi urte egindako erromesaldia.

MIRARI ALTUBE



MIRARI ALTUBE

## Zabalik dago Duranako pasabidea

Azken hilabeteetan, Durana eta Errekarren kaleen artean egiten zebiltzan oinezkoendako pasabidea bukatzean dago. Azken ukituak baino ez zaizkio falta eta beraz, abuztuaren 14tik zabalik dago. Otsailean ekin zion Amaral enpresak pasabidea egiteari. Proiektu horren aurrekontua 219.000 eurokoa izan da. Pasabideak 35 metroko luzera du eta lehenengo 20 metroak, Durana kaleko 28. zenbakian kokatutako eraikinaren azpitik igarotzen dira. Lurzorua granitzkoak da eta paretak harrizkoak.

> ARETXABAleta

## KZguneak ordutegi berria du: astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 13:00etara

Udako oporen ostean, Aretxabaletako KZguneko ateak gaur, astelehena, zabalduko dira berriro. Baina, ordutegi berria izango du zerbitzu horrek. Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 13:00etara, hain zuzen ere. Hango arduradun Aitor Madridek gogorarazi duenez, Izenpe eta Ona txartelak eskuratzearaz gain, hainbat ikastaro egin daitezke herriko KZgunean. Horretaz aparte, IT txarteleko azterketak ere egiten dira, oposaketarako baliagarriak direnak. Azken horien harira adierazi duenez, datorren egubakoitzean ekingo diote berriro azterketak egiteari.

ESKORIATZA > UDALA

# Irailaren 12ra arte dago ur tasa ordaintzeko aukera

Bigarren hiruhilabeteari dagokion estolderia eta ur hornikuntza tasak borondatez ordaintzeko epea da esandako hori

**M.B. > ESKORIATZA**  
Eskoriatzarrek datorren irailaren 12ra arte izango dute aurtengo bigarren hiruhilabeteari dagokion estolderia eta ur hornikuntza tasak borondatez ordaintzeko aukera. Hilabete dute esandako ordainagiria ordaintzeko, joan den abuztuaren 8an hasi zen eta epea.

Ohikoa den bezala, norberaren aurrezki kutxaren edo banaketxeen bidez ordaindu beharko dira estolderia eta ur hornikun-



Irailaren 12an amaituko da ur tasak ordaintzeko epea.

IKER BARANDIARAN

tuan hartu behar izango dute iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunegunetik aurrera zenbatzen hasiko dela hori. Erreklamazioak udaletxeko sarrera erregistroan aurkeztu beharko dira, bulego orduetan.

## IRIARTE

Umeen denda  
•  
Helduen lentzeria



Durana 8  
Tel.: 943 79 10 96  
ARETXABAleta

tzaren gaineko ordainagiriak. Udalak jakinarazi duenez, aipatutako epean zorrak ordaintzen ez badira, prozedura exekutibo-

tik eskatuko dira eta horiei premi amenduzko errekargua, berandutza interesak eta sor dai-tezkeen kostuak gehituko zaizkie.

## ERREKLAMAZIOAK

Ordaingiriek desadostasuna dutenek hilabete izango dute erre-kurtsoa aurkezteko epea. Kon-

ANTZUOLA &gt; FUTBOLA

# Larrea eta Unanue dira entrenatzaile berriak

Hainbat jokalarik taldea utzi dute eta jubenil mailako sei lagunek jardungo dute nagusiekin

IRATI AGIRREAZALDEGI &gt; ANTZUOLA

Antzuola Kirol Elkarteko futbol taldea entrenatzeko ardura haritu zuen Felix Recio, baina lehen entrenamendu saioaren ostean utzi zuen taldea. Hastear den denboraldirako ordezkoaren bila hasi eta taldeko arduradunek bi entrenatzaile hartu dituzte: Iban Unanue eta Igor Larrea. Unanue taldeko jokalaria izan da orain arte, baina lesio baten ondorioz jokatzeari utzi dio. Larrea bigarren entrenatzailea izan da azken denboraldietan.

Entrenatzaile berria aukeratu behar izan dute Antzuolan, izan ere, Andoni Azkargorta, orain arteko entrenatzailea Arra-

satera joan da entrenatzaile lanak egitera. Honekin batera Antzuolan jokalari izan den Xabi Azkarratet ere Arrasatera jo du presztatzaile fisiko eta Azkargortaren laguntzaile lanak egitera. Iker Cabrera ere mondrako jokalaria izango da denboraldi honetan.

Beste hainbat jokalarik taldea utzi egin dute: Jon Gurutz Alberdik eta Aitor Berraondok iazkoa azken denboraldia izan zela argizutelako eta Aitor Godoyk Italia-ka ikastera joango delako.

Denak ez dira bajak, ordea. Jubenil mailako sei jokalari izango dira talde nagusian: Ibai Zaballo, Niko Gimeno, Ander eta Xabi Arbulu, eta Aitzol eta Jon Iturbe.

## HELBURUA MAILARI EUSTEA

Igor Larreak azaldu dizkigu taldearen asmoak: "Bajei aurre egin eta jokalari berrieikin helburu bakarra dugu: mailari eustea. Etxeko partiduetan puntuak eskuratzentzai gara eta kanpoan ikusiko dugu zer egiteko gai garen. Baja garrantzitsua izan dira eta taldea sendotu beharra dago. Hala ere, entrenamenduetan eta partiduetan jarrera oso ona azaldu dute gazteenek".

Jokalariek prestatzen dihar-dute eta entrenamenduez gain, lagun arteko partiduak jokatu dituzte Arrasatekoen aurka eta Bergarako BTL Skoen kontra. Denboraldia hilaren 13an hasiko dute Anaitasuna Bren aurka, etxeen. Bergarako kontrakoak azken partidua izango dela aurre-ratu digu Larreak.



Dorronsoro basozaina, Eusebio Villar alkatea eta Uribarren diputatu, egunean.

LEINTZ GATZAGA &gt; MENDIETAKO PLANA

# Mendien bizia bermatzeko plana aurkeztu dute

Mendietako berrikuspen planaren aurrerapena aurkeztu zuen Aldundiak egunean, eta ostean Dominagara doan bidea inauguratu zuten

MIRARI ALTUBE &gt; LEINTZ GATZAGA

Landa Ingurunearen Garapenerako diputatu Rafa Uribarren eta Aldundiako hainbat teknikari izan ziren abuztuaren 28an, Gatzagan, mendietako berrikuspen planaren aurrerapena aurkezten. 1.000 hektarea baso publiko ditu Gatzagak, eta horien kudeaketa plana 1994an proposatu zuten. Orain, plan hura berrikusteko garaia ailegatu dela dio Aldundiak eta proposamena aurkeztu zion udalbatzari. Helburua da 100 urteren bueltan basoen etorkizuna bermatzea, eta proposame-

na, hazitik datozen zuhaitzen bitartez egitea. Proiektua egingo dago, baina txosten ofiziala oraindik ez dute landu; aurten aurkeztuko dute basoen ordenazio proiektua.

Ekitaldiaren ostean Dominaga baserrira doan bidea inauguru zuten -Gatzagamendia basora doana-, eta Aldundiak 2007ko udazkenean konpondu zuena: ormigoia bota, abreak errepidera ez jaisteko "kandiar" parrilla jarri eta egur bila doazen kamioiendako leku egin. Lanek 152.377 euroko aurrekontua izuten.

ARAMAIO &gt; DIRULAGUNTZA

# 32.000 euro Udalari hirigintzarako

Arabako Aldundiako Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Sailak eman du dirulaguntza hirigintza planak garatzeko

MIRARI ALTUBE &gt; ARAMAIO

Arabako Foru Aldundiak 250.000 euro bideratu ditu lege-diak exijitzen dituen hirigintza planak garatzten laguntzeko. Arabako 20 udalerriko jaso dituzte laguntzok, tartean Aramaio. Diru kopururik handienetako jaso du Aramaio, 32.000 euro hain zuzen.

Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko diputatu Alfredo de Miguelek agintaldi hasieran agindutako moduan bideratu dituzte laguntzok, hirigintza gaiek eskatzen dituzten administrazio lanak burutzeko hain zuzen. Aldun-

diko arduradunek badakite hirigintza gaiak bideratzea ez dela samurra izaten askotan eta sarritan garestiak ere badirela, batez ere herri txikien kasuan. Horregatik aholkulartza lana egiten dabil Aldundia kontu tekniko eta juridikoen kasuan, lan jakinetan langileen kontratazioa bere gain haritu du, eta orain, 250.000 euro bideratu ditu. Diru horrekin hiri ordenakuntzarako plan nagusien erredakzioa egiteko laguntza kontratatu beharko dute udalek, baita ingurumen eraginari buruzko ebaluaketa egiteko ere.



Igor Larrea eta Iban Unanue BTL Sren aurkako lagun arteko partiduaren aurretik, zapatuan Eztala.

JOSETXO ARANZABAL

ELGETA &gt; SALBADOR KALEKO LANAK, AMAITZEAR

# Salbador kalean aparkatzea debekatu dute, oinezkoek lehentasuna izan dezaten

Urbanizazio lanak amaitzean daude; Udalak kalearen gaineko araudia landuko du, herritarren laguntzaz

E.M. &gt; ELGETA

Salbador kaleko urbanizazio lanak amaitzean daude. Elgetako Udalak bertan aparkatzea debekatu zuen abuztuaren. Herritarrei neurri horren berri emateko kartelak jarri zituzten abuztuaren hasieran. Izan ere, Salbador kale-

an oinezkoek lehentasuna iza-tea da Udaleko arduradunen asmoa. Horixe adierazi digu Oxel Erostarbe alkateak. Irailean zehar kalearen gaineko araudia lantzen hasiko direla aurreratu digu alkateak. Horretarako, Salbador kaleko bizilagunak bilera baterako deituko ditu datozen egunotan. Oraindik bilera horren data zehazteko dago.

Esan bezala, autoek ezin izango dute kalean aparkatu aurre-rrantzean. Karga eta deskarga lanetarako bakarrik aparkatu ahal izango da bertan, gehienez 15 minutuz. Era berean, 3.000 kilotik gorako kamioek baimen berezia eskatu beharko dute uda-

letxeen kalera sartu ahal izateko. Hamabost eguneko aurrerapenarekin eskatu beharko dute baimena udaletxean.

## ERRETIRATUEN IRTEERA


Bestalde, erretiratuen elkartea Olitera irteera iragarri du irailaren 17rako. Azagran egingo dute bazkaria egun horretan, Venecia ostatuan hain zuzen. Irteera 08:30ean izango da eta itzulera, iluntze aldera. Bazkide-ek 30 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, 40 euro. Izena emateko epea hilaren 12ra arte dago zabalik. Interes-tuek Pedro Mari Uberarenaga jo dezakete.

# Kirola



## > FUTBOLA

Eguenean hasita hainbat futbol torneo jokatuko dituzte ibarrean > 16



## > ZIKLISMOA

Iban Velasco arrasatearra Espainiako Itzulian dabil > 20

## > ELKARRIZKETA

Pekingo Olinpiar Jokoetan bosgarren sailkatuta, Maider Unda borrokalarri oletarrak abuztuan biziak esperientziaren gainean egin du berba > 21



BEROKETA SAIOA Bergarako jokalariak, zapatuan, lagunarteko jokatu aurrelik Ipintzako zelai berrian berotze ariketak egiten.

JOSETXO ARANTZABAL

FUTBOLA > ZELAI BERRIAK BERGARAN ETA OÑATIN

## "Hemen futbolean ondo egiten ez duenak ez du aitzakiarik"

### ESTREINALDIA

Aurtengo denboraldian Bergaran eta Oñatin zelai berriak estreinatuko dituzte

### AZKOAGAIN, GAUR

Bergaran hasi dira Ipintza erabiltzen, gaur zapalduko dute Azkoagain lehenengoz

XABIER URTZELAI > BERGARA

Aurtengo denboraldira begira, Aloña Mendiko eta Bergarako taldeek badute nobedade garrantzitsu bat, futbol zelai berria estreinatuko dutela, alegia. Lanak erabat bukatzeko, bergarrak berdegune artifizialean dabilta denboraldiaurrea egiten. "EZ dakit futbol zelaia behar baino lehenago erabiltzen ez garen hasi", dio BTLS taldeko ordezkarri Jose Luis Beitiak: "Oso ondo geratuko da, baina oraindik erabat bukatzeko dago, ureztatzeko ez dago urik eta horrelako zelaiak ondo ureztatu behar dira".

Horrekin batera, asteak beharko dira zelai gainera botako kautxu guztia ondo finkatzea. Gainera, orain arte egindako entrenamendu saioetan Bergarako eta BTLSeko jokalari banak min hartu dute, baina lesio horien

zergatia zelaia ondo egonkortu gabe dagoelako esatea asko esatea da: "Denboraldiaurrean lesioak nahiko ohikoak dira, ez dut uste zelaiagatik denik", adierazi du Bergarako entrenatzaile

Manu Diazek. Hori bai, Ipintza berrituta egonda ere, Bergarako talde nagusiak Agorrosinen jokatuko du: "Ipintza oso ondo geratuko da, baina benetako futbola belarrezko futbol zelaian jokatu

behar dela uste dut. Ahal dugun bitartean, guk Agorrosinen jokatuko dugu". Bergarako jokalari Iñaki Mujikak ere zelai berriaren gainean egin du berba: "Dagoneko bost entrenamendu saio egin ditugu hemen, eta lehengo zelaiarekin alderatuta alde ona dago. Hemen futbolean ondo jokatzen ez duenak ez du aitzakiarik".



Aloñako taldeek gaur zapalduko dute lehenengoz Azkoagain berritua.

### ALOÑAKOAK ASTELEHENEAN

Oñatiko taldeek gaur, astelehera, zapalduko dute lehenengoz Azkoagaingo berdegune berria. Preferenteko taldea abuztuaren 18an hasi zen entrenatzen, eta orain arteko entrenamenduak Ibarra eta Mojategin egin dituzte. Futbol zelai primeran dagoela onartu du Javier Azpiazu presidenteak, nahiz eta argindarra-rekin arazoak dituzten: "Hilabete honetan argi-sorgailu batekin moldatu beharko gara".



Aloñako eta UDAko jokalariak falta jaurtiketa baten aurrean, iazko Arrasate Hiria txapelketan, Mojategin. Orduan Arrasatekoendako izan zen saria.

GOIENKARIA

DENBORALDI-AURREA > UDAKO TORNEOAK

# Datozen egunotan jokatuko dituzte denboraldia 'berotzen' hasteko torneoak

Datorren egunean hasita, ibarreko talde guztiak udako torneoetan buru-belarri ibiliko dira

Irailaren 13 eta 14ko asteburuan hasiko dituzte erregionaleko eta preferenteko ligak

#### XABIER URTZELAI > BERGARA

Joan berri den asteburua lagun arteko norgehiagokak jokatzeko aprobetxatu dute ibarreko talde gehienek, bai preferentekoek eta baita erregional mailakoek ere. Denboraldi-aurrea, bete-betean. Iraileko bigarren asteburuan hasiko dituzte liga txapelketak, baina lehenago hainbat *boligeratzen* dira jokatzeko. Hala, liga hasiera *berotzeo* balio duten Arrasate Hiria, Bergara Hiria eta San Martingo torneoia izango dira datorren asteburuan, baina Bergara aldeko txapelketetan kanporaketak aste barruan hasiko dituzte.

#### BERGARA HIRIA

Eguenean bertan hasiko dute Bergara Hiria, erregional mailako taldeen parte-hartzearekin. Eta tartean izango da preferenteko Aloña Mendi, orain arte jokatu dituzten lagun arteko partiduetan egindakoa zuzentzeko asmoz -jokatutako bi partiduak

galdu dituzte-. Egia da entrena-tzaileek lagunartekoak presta-kuntza moduan erabiltzen dituztela, eta ligara begira ezer gutxi aurreratzen dutela. Baina, torneoak bestelakoak dira, irabazteko daude.

Hala, preferenteko Aloñak Bergarako lehenengo eta bigarren erregionaleko taldeak izango ditu aurrean, eta baita Antzuola ere. Ez da izango, baina, Bergara aldean egingo duten torneo bakarra, aurten kategoriaz igo den BTLSek beste txapelketa bat antolatu duelako: erregional mailako lehenengo San Martin torneoia. Hori zapatu eta domekan jokatuko dute, eta UDA, Mondra, Anaitasuna eta BTLS izango dira aurrez aurre.

#### KEINU ZATARRAK

Ez da oso argia izan behar kontratzeko Bergarak antolatutako torneoan ez dutela herri bereko BTLS taldea gonbidatu. Eta azken talde horrek beste horrenbeste

egin duela Bergararekin. Ez daki-gu zenbaterainokoak diren herri bereko bi talde horien arteko hika-mikak -jokalarien artean ez dago arazorik-, baina horrelako keinu zatarrek erakusten dute harremana ez dela sanoena.

#### Torneoak

##### Arrasate Hiria

Hiruko torneoia.  
Domekan, hilak 7, Mojategin (16:30).  
Taldeak:  
> Aloña Mendi  
> Aretxabaleta  
> Mondra

##### Bergara Hiria

Lauko torneoia.  
Eguenetik zapatura, partidu guztia 18:30ean, Agorrosinen.  
Eguna, hilak 4:  
Bergara (Bigarren erreg.)-Aloña  
Egubakoitz, hilak 5:  
Bergara-Antzuola  
Zapatua, hilak 6, finala.

##### Erregional mailako San Martin Torneoa

Lauko torneoia.  
Zapatua eta domeka, Ipintzan.  
Norgehiagokak:  
Zapatua, hilak 6:  
BTLS - Mondra (11:30)  
Anaitasuna - UDA (16:30).  
Domeka, hilak 7:  
3. eta 4. postuagatik lehia (16:00)  
Finala (18:00).

Eta, futbol zelai bera partekatze-ra *kondenatuta* daudela jakinda, ahalegin bat ez litzateke soberan egongo.

#### ARRASATE HIRIA

Preferenteko mailako hiruko torneoia domekan jokatuko dute Aloñak, Aretxabaletak eta Mondrak. Taldeen artean hainbat aldaketa izan dira -aurrerago emango dugu horren berri-, baina uztai-lean *Goienkaria*-k aurreratu moduan Aretxabaletako eta Mondrako aulkietan izango dira aldaketa handienak. Hala, domekan Andoni Azkargorta antzuolarra izango da Mondra gidatzen, eta Igor Gordobilek UDA zuzenduko du, Arenazarekin batera -Mojategin egonda Gordobil ez ote da nahastuko...-. Aloñak, berriz, jarraikortasuna emango dio Josu Zubiaren proiektuari.

Ligari dagokionez, lehenengo derbiaz gozatzeko laugarren jardunaldira arte itxaron behar. Mondraren eta Aloñaren arteko norgehiagokan Arrasaten Mari-txu Kajoi, eta Oñatin ere jaia.

#### ERREGIONALA DERBIZ JOSITA

Preferenteko derbiekin batera, lehenengo erregionala derbiz josita egongo da aurtent. Iaz Bergarak eta Antzuolak txapelketa oso txukuna egin zuten, eta azken

asteotara arte ibili ziren preferenteko igotzeko borrokan. Aurten ere horretan saiatuko dira, baina lehiakide gogorrak izango dituzte ibarrean, izan ere, Aretxabaleta, Mondra eta BTLS ordezkarri berriak dira kategoria horretan.

Alde horretatik, lehenengo derbia morboz beteta egongo da, Bergara aldekoendako, batez ere. Ligako hirugarren jardunaldian jokatuko dute BTLS-ek eta Bergarak. Eta, Bergarako Iñaki Muikkak aurreratu du *pike* galanta izango dela: "Topera joan beharko gara norgehiagoka horretara. Lagun arteko partidu bat izango da, baina egunero tabernara joaten garenean elkarri adarra jotzen ibiltzen gara; hala ere gure artean *pike* sanoa daukagu, eta futbol zelaian ere beste horren-bestea izatea espero dut".

#### FUTBOLA 'HARMAILATIK' SAIODA

Aurten ere GOITBko *Harmailatik* saioidan jarraitu ahal izango da ibarreko futbola, astelehenero. Gainera, irailaren 15ean hasiko duten saioa aurreko urteotakoa baino luzeagoa izango da, 40-45 minuti, gutxi gorabehera. Horri esker, preferentearekin batera, aurten interesgarri datorren erregionalak ere tarte zabala izango du.

The Danbaka logo is centered on a light brown background. It features a red cable with a white connector on the left, which forms the left side of a heart shape. The right side of the heart is formed by a white cable with a red connector. Inside the heart, there is a red rectangle containing the word "DANBAKA" in white, bold, sans-serif capital letters. To the right of "DANBAKA" are four white vertical bars of increasing height. Below "DANBAKA" is the text "III. MUSIKA LEHIAKETA" in a smaller, white, sans-serif font. At the bottom of the red rectangle, the text "DEBABARRENA DEBAGOIENA DURANGALDEA" is written in a small, white, sans-serif font. To the right of the red rectangle, the website "www.danbaka.com" is written in a small, white, sans-serif font.


# PARTE HARTU NAHI?

Debagoiena, Debabarrena edo Durangaldeko  
bazara eta taldean zein bakarlarri gisa bazabiltza,  
**Danbaka Musika Lehiaketa** zain daukazu.  
Lehiaketako talde onenak disko bat grabatu eta  
kaleratuko du. Debagoineko talde onenak ere sari  
bera eskuratuko du.

Oinarriak eta informazio gehiago:  
[www.danbaka.com](http://www.danbaka.com).

irailak 19 izena  
emateko  
azken  
eguna

# Debagoieneko WEBGUNEAK



## AHOKULARITZAK

**ASEGI**  
[www.asegim.com](http://www.asegim.com)  
**ESTRADOS**  
[www.consultoriaestrados.com](http://www.consultoriaestrados.com)  
**LIZKER**  
[www.lizker.com](http://www.lizker.com)

## AKADEMIAK BASTIDA

[www.bastida.es](http://www.bastida.es)

## ALTZARIAK ETA APAINKETAK BZ SISTEMAS

[www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas](http://www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas)

## ANTZINAKO ALTZARIAK ZUMADIA

[www.zumadia.com](http://www.zumadia.com)

## ARETOAK 360 ARETOA

[www.360aretoa.com](http://www.360aretoa.com)

## ARGAZKIAK/ARGAZKILARIAK MARIA JESUS

[www.mjargazki.com](http://www.mjargazki.com)

## ARROZTEGIAK ARREGI

[www.goiena.net/blogak/arregi](http://www.goiena.net/blogak/arregi)  
**AZKARATE**  
[www.goiena.net/blogak/azkarate](http://www.goiena.net/blogak/azkarate)  
**UGARTE**  
[www.goiena.net/blogak/ugartearotza](http://www.goiena.net/blogak/ugartearotza)

## ARKITEKTURA ESTUDIOA BIARK

[www.goiena.net/blogak/biark](http://www.goiena.net/blogak/biark)

## ARRANDEGIAK ITSAS EDER

[www.goiena.net/blogak/itxaseder](http://www.goiena.net/blogak/itxaseder)

## ASEGURUAK BRIZ ASEGUROUAK

[www.goiena.net/blogak/briz-aseguruak](http://www.goiena.net/blogak/briz-aseguruak)  
**LAGUN ARO**  
[www.segurosagunaro.com](http://www.segurosagunaro.com)

## WINTERTHUR

[www.axawinterthur.es](http://www.axawinterthur.es)

## AUTO – KONTZESIONARIOAK 4QUATTRO4

[www.4quattro4.com](http://www.4quattro4.com)

## BIDAIA AGENTZIAK BARCELO

[www.barceloviajes.com](http://www.barceloviajes.com)

## BITXITEGI TAILERRA OSKAR VITORIA

[www.oskarvitoria.com](http://www.oskarvitoria.com)

## EGUZKI OHALAK TOLDOS LETE

[www.toldoslete.com](http://www.toldoslete.com)

## ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK ARETXARGI

[www.goiena.net/blogak/aretxargi](http://www.goiena.net/blogak/aretxargi)  
**GORLA**  
[www.goiena.net/blogak/gorla](http://www.goiena.net/blogak/gorla)

## ELEKTRIZITATE MATERIALAK SETALDE

[www.setalde.com](http://www.setalde.com)

## ELKARTEAK

**EUSKAL HERRIKO MAHAI-FUTBOL  
FEDERAZIOA**  
[www.goiena.net/blogak/ehmff](http://www.goiena.net/blogak/ehmff)

## ERAIKUNTZAK

**CONSTRULAN**  
[www.construlansl.com](http://www.construlansl.com)

## ERROTULOAK

**PANDO**  
[www.goiena.net/blogak/pando](http://www.goiena.net/blogak/pando)

## ROTUDENAK

[www.rotudenak.com](http://www.rotudenak.com)

## ESKULANAK

**IZEDER**  
[www.goiena.net/blogak/izeder](http://www.goiena.net/blogak/izeder)

## ESTETIKA ZENTROAK

**ANGELA**  
[www.angelaestetika.net](http://www.angelaestetika.net)  
**GUZTIZ EDER**  
[www.goiena.net/blogak/gutzizeder](http://www.goiena.net/blogak/gutzizeder)  
**LILURA**  
[www.goiena.net/blogak/lilura](http://www.goiena.net/blogak/lilura)  
**MAIER**  
[www.goiena.net/blogak/richimaier](http://www.goiena.net/blogak/richimaier)

## FISIOTERAPIA ZENTROA

**EKIN**  
[www.goiena.net/blogak/ekin](http://www.goiena.net/blogak/ekin)

## FORMAZIOA

**LEGE SOZIOLOGIA INSTITUTUA**  
[www.iisj.es](http://www.iisj.es)

## GARAJEAK / KONPONKETA

**AMG AUTOAK**  
[www.amgautoak.com](http://www.amgautoak.com)

## AUTOS ÄRETXA

[www.autosaretxa.com](http://www.autosaretxa.com)

## GALLASTEGI MOTOR SPORT

[www.goiena.net/blogak/gallastegi](http://www.goiena.net/blogak/gallastegi)

## JC RACING

[www.goiena.net/blogak/jcrcaling](http://www.goiena.net/blogak/jcrcaling)

## GARBIKETAK

**HEMEN**  
[www.hemen-garbiak.com](http://www.hemen-garbiak.com)

## DENETIK GARBITASUN

[www.goiena.net/blogak/denetik](http://www.goiena.net/blogak/denetik)

## GIMNASIOAK

**IRUDI SPORT**  
[www.goiena.net/blogak/irudisport](http://www.goiena.net/blogak/irudisport)

## ZAINDUZ

[www.goiena.net/blogak/zainduz](http://www.goiena.net/blogak/zainduz)

## GOZOGINTZA EKOLOGIKOA

**ETA INTEGRALA**

## GALGORRI

[www.goiena.net/blogak/galgorri](http://www.goiena.net/blogak/galgorri)

## HARATEGIA

**LANDALUZE**

[www.goiena.net/blogak/galgorri](http://www.goiena.net/blogak/galgorri)

## HAUR PARKEAK

**OKIPARK S.L.**

[www.goiena.net/blogak/okipark](http://www.goiena.net/blogak/okipark)

## HESTEBETEAK

**URDEKI**

[www.goiena.net/blogak/urdeki](http://www.goiena.net/blogak/urdeki)

## HIZKUNTZA AKADEMIAK

**MONDRAGON LINGUA**  
[www.mondragonlingua.com](http://www.mondragonlingua.com)

## LA PUERTA AL INGLES

[www.goiena.net/blogak/puerta-ingles](http://www.goiena.net/blogak/puerta-ingles)

## HOTELAK

**HOTEL MONDRAGON**

[www.hotelmondragon.com](http://www.hotelmondragon.com)

## IKASTETXEAK

**ARETXABAleta INSTITUTUA**

[www.iaretxabaleta.com](http://www.iaretxabaleta.com)

## ARIZMENDI IKASTOLA

[www.arizmendi.ikastola.net](http://www.arizmendi.ikastola.net)

## ELKAR-HEZI IKASTETXEAK

[www.elkarhezi.com](http://www.elkarhezi.com)

## MONDRAGON UNIBERTSITATEA

[www.monragon.edu](http://www.monragon.edu)

## ILE-APAINEDEGIAK

**RICHI**  
[www.goiena.net/blogak/richimaier](http://www.goiena.net/blogak/richimaier)

## KIZKUR

[www.kizkur.com](http://www.kizkur.com)

## INDUSTRIA HORNIDURAK

**SUMINISTROS UGARTE**

[www.suministrosugarte.com](http://www.suministrosugarte.com)

## INFORMATIKA

**DCA COMPANY**

[www.dcacompany.com](http://www.dcacompany.com)

## ARITU

[www.aritu.com](http://www.aritu.com)

## INGENIARI GEOLOGIKOA

**HARRILUR**

[www.harrilur.com](http://www.harrilur.com)

## INMOBILIARIAK

**KOROSTI**

[www.inmokorosti.com](http://www.inmokorosti.com)

## INPRIMATEGIA

**EGUZKIGRAF**

[www.goiena.net/blogak/eguzkigraf](http://www.goiena.net/blogak/eguzkigraf)

## ITURGINTZA ETA BEROGINTZA

**URBIETA**

[www.goiena.net/blogak/urbjeta](http://www.goiena.net/blogak/urbjeta)

## URKO MANTENIMIENTO, S.L.

[www.goiena.net/blogak/urko](http://www.goiena.net/blogak/urko)

## JANARIAK

**GERTU**

[www.goiena.net/blogak/gertu](http://www.goiena.net/blogak/gertu)

## ARANTXA PRODUKTU FRESKOAK

[www.goiena.net/blogak/arantxa](http://www.goiena.net/blogak/arantxa)

## JATETXEAK

**MARKIEGI**

[www.goiena.net/blogak/markiegi](http://www.goiena.net/blogak/markiegi)

## UDALAITZ

[www.goiena.net/blogak/udalaitz](http://www.goiena.net/blogak/udalaitz)

## BASTER ALDE

[www.baster-aldejatetxea.com](http://www.baster-aldejatetxea.com)

## DRAGON ORIENTAL

[www.goiena.net/blogak/dragon-oriental](http://www.goiena.net/blogak/dragon-oriental)

## DUKIENA

[www.goiena.net/blogak/dukiena](http://www.goiena.net/blogak/dukiena)

## GOIKO BENTA

[www.goikobenta.com](http://www.goikobenta.com)

EUROPAKO BETERANOEN ATLETISMO TXAPELKETA > IBARREKO BI ATLETA ESLOVENIAN

# Aitor Eraña eta Marisol Ramosek lan ona egin dute Europako Txapelketan

Egindako beroak baldintzatu zituen Eraña eta Ramosek lortutako denborak

Eraña Donostiako maratoia prestatzen hasiko da; Ramos, berriz, kros probak

JASONE ZABALA > BERGARA

Aitor Eraña bergararrak Europako Beteranoen Atletismo Txapelketan parte hartu du abuztu hasieran, Eslovenian. Bergarako korrikalari beteranoak, Ljubjanako maratoia korritu zuen hilaren 3an ospatu zen proban. 40 urterekin piztu zitzzion maratoietarako grina eta ordutik 17 egin ditu. Bere asmoa lasterketa 3 ordutan bukatzea bazen ere, ez da posible izan baina lasai eta pozik dago egindako lanarekin; izan ere, egoera ez zen berak

**"Proba 3 ordutan amaitzea nahi nuen; ez zen posible izan. Egindakoaz pozik nago"**

**"Donostiako marathoa iritsi arte, Debagoienean zehar ibiliko da entrenatzen"**

esperotakoa izan. Izañ ere, Esloveniako bero eta hezetasun itzelak, proba uste baino denbora gehiagoan egitea ekarri zuen. Hala, 3 ordu eta 4 minututan maratoia bukatzea helburutzat bazuen ere, azkenean 3 ordu eta 41 minuto behar izan zituen helmugara heltzeko. Hala ere, Eraña aitortu digun bezala, "halako probek eta experientziek biziñan asko irakasten dute". Esandako moduan amaitu zuen maratoia Eraña, 3 ordu eta 41 minututan. Marka hori hobetu dezakeela badaki, eta dagoeneko hasi da azaroan egingo den Donostiako maratoia prestatzen. Debagoienean oso toki egokiak ditugu haren esanetan entrenaatzeko, eta Donostiako proba iritsi arte hemen ibiliko da entrenatzen, probaren egunean duen onena eman ahal izateko. Eraña-ren errekorra 2 ordu eta 41 minututan dago.

#### RAMOSEN 5.000 M-TAN

Marisol Ramos oñatiarrak ere, Europako Beteranoen Atletismo Txapelketan, 5.000 metroko proban parte hartu zuen, uztailaren 30ean, eta egindako lanarekin gustura gelditu da. Proba laugarren postuan amaitu zuen, berak espero baino hobeto: "Parte-hartzaileen maila kontutan hartuta, pozik nago lortutakoarekin", adierazi digu Ramosek.

#### ESLOVENIARAINOKO BIDEA

Europako txapelketa horretan parte hartu aurretik, Gipuzkoako hainbat kros lasterketetan ibili zen eta gustura gelditu zen



Irudian, Marisol Ramos Ljubjanako atletismo pistan, proba hasi aurretik.

M.R.

#### "Partehartzaileen maila kontutan hartuta, pozik nago lortutakoarekin"

**"Inoiz ez nuen uste Esloveniaraino joango nintzenik Europako proba baten partehartzera"**

egindako lanarekin. Horregatik erabaki zuen Espainiako txapelketara joatea. Horrela, bertan lortutako emaitzak oso positiboa izan ziren –10.000 metrotako proban lehenengo gelditu zen eta 5.000 metrotan, hirugarren –eta Europako Txapelketara joatea erabaki zuen. Parte hartze soila-rekin nahikoa izan zuen Ramosek. "Nire helburua ez zen marka egitea; aurrez esan dudan bezala, ni baino maila hobea go duten atletak bertan zeudelako, baina gorputzaldi onean nago eta honaino heltzeko egin dudan bidea eta lana handia izan da".

Markei dagokionez esan, Ramosek 5.000 metrotan 18:23koa dueña, eta Eslovenian 19:11 egin zuen. Marisol Ramosek adierazi duen moduan: "Kontutan hartu behar da arratsaldez izan zela proba eta bero asko egin zuela". Esperientzia nolako izan den galdu dio gunean, "oso ona" izan da bere erantzuna, "inoiz ez nuelako uste Esloveniaraino joango nintzenik Europako proba batean parte hartzera. Europako proba batean parte hartzen dudan lehen aldia baita". Gainera, aurten federatu da beteranoen mailan parte hartzeko, eta Ramosek adierazi digun bezala "ez nuen uste hain urrun helduko nintzenik". Lortutako emaitzak onak izan dira, baina ez dauka hurrengo proba bat egitea helburu; hala eta guztiz ere, entrenatzen jarraituko duela adierazi digu, segur aski gainera gogoko duen horretan hobetzen jarraitzeko, kroasan, alegia. Hemendik aurrera dituen erronkak zeintzuk diren galdetuta, zera erantzun digu: "Pasa den urtekoa errepikatzen sariatzea".



Aitor Eraña asko sufritu zuen beroagatik Eslovenian.

ARTXIBOA

SASKIBALOIA &gt; OINTXE ELKARTEA

# Talde nagusia gaztetuta dator Javier Zurbanoren gidaritzapean

Lehenengo maila nazionaleko entrenatzailea izango da Zurbano

Elkartea filosofia aldatu du; gazteei garrantzia eman gura die aurrerantzean

**ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE**  
“Lehenengo maila nazionaleko talde gazteena izango gara”, adierazi du Javier Zurbano lehenengo maila nazionaleko entrenatzaile berriak. Gaineratu du, jokalari ia guztiak Ointxe elkarteko harrobiak hazitakoak izango direla, Basconiatik etorritako Igor Moratxo bergararra izan ezik.

Taldearen helburua jokalarietan taldea egitea izango da. “Esperimentzia gutxiko taldea izango dela kontuan hartuta, taldea egin eta maila mantentzen ahalginduko gara. Gure helburuak epe luzera jarritakoak izango dira; hau da, hiru edo lau urte barru EBA ligara salto egiteko taldea sortzea da helburua”, azaldu du entrenatzaile berriak.

Igoera fasean sartzen ahaleginduko dira arrasatearrak; hala, maila mantentzea bermatuko dute eta, gainera, jokalarietan espe-



Ointxeko jokalariak Mojategin egindako entrenamendu saioan.

OINTXE

rientzia hartzeko modua izango dutela dio Zurbanok.

#### ALDAKETA HANDIA

Zurbanorentzat erronka izan da lehenengo maila nazionaleko taldearen gidaritza hartzea. “Ilusioz

beteta” eta erronkari aurre egiteko gogoz dagoela azaldu du. Orain arte kadete mailan ibili da, baina maila nazionalean ere badu esperientzia Zurbanok.

Jakinaren gainean dago, zale asko ez direla elkartearen alda-

ketarekin bat etorriko. Hala ere, guztien babesia beharrezkoa izango dela uste du denboraldi berriari aurre egiteko. Hain zuzen, urriaren 4an hasiko dute denboraldia Cafes Aitonaren aurka, Iturripe kiroldegian.

ZIKLISMOA &gt; ESPAINIAKO ITZULIA

# Velasco, etaparen bat lehiatzeko gogoz

**A.E. > BERGARA**  
Iban Velasco arrasatearra etaparen bat lehiatzeko asmoarekin joan da Spainiako itzulira. Hori esan zuen atzo, Granada eta Jaen arteko etapa hasi aurretik. “Helburu pertsonala etaparen bat lehiatzeko ahalegina egitea izango da. Ea ihesaldiren baten sartu eta helmugara iristeko aukera dudan”, esan du Velascok.

**TALDEA, SENDO**  
Zapatuan taldekako erlojupekoak jokatu zuten; eta, taldeak egindako lanarekin gustura geratu da arrasatearra. “Helburua ahalik eta denbora onena egitea zen. Igor Anton da taldeko liderra, eta helburua Anton sailkapenean postu onean geratzea zen”, azaldu du Velascok zapatuko lanaz galdezzean. Euskaltel-Euskadik bigarren marka onena egin zuen,

etapa irabazi zuen Liquigas taldeak baino 8 segundo gehiago behar izan zituzten helmugan.

#### GOGORRENA L'ANGLIRU

Lehenengo astea lasaia izango dela dio Velascok. “Gogorrena Asturiaseko etapak izango dira; hain zuzen, L'Angliru. Onenek hor erabakiko dute”, dio.

Itzulia irabazteko faboritoa Alberto Contador dela uste du Velascok: “Giroa irabazi ostean, atseden hartu du eta sasoia onean iritsi da Itzulira”. Gaineratu du Igor Anton ere lehenengo posuetan ibiliko dela, “lehenengo bosten artean”, hain zuzen.

**MARKEL IRIZAR ALEMANIAN DA**  
Euskaltel Euskadiko oñatiarra Alemaniako itzulia jokatzen dabil. Sailkapeneko 49. postuan dago Irizar, 5:36ko tartarekin.



XABIER URTZELAI

## Spainiako Itzuliko porrarako 716 lagunek eman dute izena

Arrakastatsua izan da, beste urte betez, Monte tabernan Xantini peñak antolatzen duen txirrindularitza porra. Orain arteko Spainiako itzuliko porra handiena egin dute aurten; hain zuzen, 716 lagunek eman dute izena -iaz, 611 izan ziren-. Aurten internet bidez izena emateko aukera egon da; Monte tabernako Juancar Davilaren ustez, horrek eragina izan du. Argazkian, aurtengo Tourreko porrako sarituak. Aurten bi irabazole egon dira: Arrasateko Jon Mendieta eta David Enekotegi eta Elgoibarko Besa taldeko Ernesto Ezenarro.

> SASKIBALOIA  
**Gorka Alartzia**  
Azpeitiko Iraurgi taldean jokatuko du

Azken urteetan Arrasateko taldean jokalari erabakigarrria izan den Gorka Alartzia urretxuarra Azpeitiko Iraurgi taldean jokatukok du datorren denboraldian. Modu horretan, 30 urteko jokalaria EBA ligan jokatuko du. Hasieran, behintzat, urte betez jokatuko du Azpeitian.

> SASKIBALOIA  
**Aloña Mendik taldea sendotu du denboraldi berrirako**

Jagoba Gamarra, Iñigo Biain eta Ander Mallabiabarrenak Aloña Mendik jokatuko dute denboraldi berrian; hain zuzen, Gipuzkoako lehenengo mailan. Orain arte MUko jokalaria EBA ligan jokatuko du. Entrenatzailea Xabi Igartua izango da.

> SASKIBALOIA  
**Beñat Barberena Zaragozatik Castellora joan da**

Arrasateko Beñat Barberenak Castelloko Amics del Basquet taldean jokatuko du denboraldi berrian. Azken denboraldian Zaragozako Utebo taldean jokatu du Barberenak. Han, EBA ligan jokatzea aukera izan du; hala, Castellonen ere EBA ligan jokatuko du arrasatearrak.

Maider Unda > Olinpiar Jokoetan izan da, borroka librean

# "Jokoetan kirolarieiek asko ligatzen dutela egia dela konturatu naiz"

ARANTZAZU EZKIBEL > OLETA  
Olinpiar Jokoetak bueltan izan gara Maider Unda borrokalarri aramaioarrarekin. Helburua domina lortzea zuen, baina bosgarren postuarekin eta diplomarekin konformatu behar izan du Undak. Txinan bizi izan dituenak kontatzeko gogoz harrapatu dugu Oletan.

Gustura geratu zara Olinpiar Jokoetan egindako lanarekin?

Momentuan ez nintzen gustura geratu, baina, orain, atzera begira jarrita gustura nago egin dudan lanarekin. Denbora pasadenean, konturatu naiz zer edo zer egin dudala. Nik ahal dudan guztia eman dut eta alde horretatik nire buruarekin lasai nago.

Zergatik diozu momentuan ez zinela gustura geratu?

Domina eskura izatea eta ez lortzeak amorrua ematen du, eta momentuan horrekin geratzen zara. Baina, gero, ahal nuen guztian eman nuela konturatu nintzen. Gainera, zorte txar apur bat ere izan nuen.

Aurreikuspenak bete dituzu zure lehenengo Jokoetan?

Nire helburua domina lortzea zen; hortaz, ez dira guztiz bete helburuak. Baina, Olinpiar Jokoetan konbate bi irabaztea gauza handia dela uste dut.

Diploma lortu duzu baina, oraingoz, hitzezkoa besterik ez da.

Bai, hala da. Nik oraingoz ez daukat diplomariak; beharbada, gure komiteak emango digu oroi-

**"Helburua domina bazen ere, Olinpiar Jokoetan bi konbate irabaztea gauza handia dela uste dut"**

**"Lehenengo konbatean aurkariak ez ohiko gauzak egin zizkidan: haginka, hiletatik tira..."**



Maider Unda, Teresa Mendez borrokalaria eta Rafa Nadal tenis jokalariarekin inaugurazio ekitaldian.

GOIENKARIA

garriren bat etorkizunean. Baina, oraingoz, diploma hitzezkoa besterik ez da.

**Nor izan da zure ustez, Jokoetan izan duzun aurkari gorrrena?**

Gogorrena, beharbada Stanika Zlateva bulgariarra izan da.

Munduko txapelduna izan da birritan, eta maila handiko aurkaria da.

**Zure aurkarietan zikin jokatu dutela ere esan duzu.**

Bai, lehenengo konbatea ez zen ohikoa izan. Aurkaria hatzparrak sudurretik sartzen, haginka eta hiletatik tiraka hasi zitzaidan. Benetako kaleko borroka izan zela esan daiteke. Egin zizkidanak ezin dira egin konbate batean. Kalean jendeak esaten dit ea zergatik nik ere ez nion berdina egin; baina, seguru nago nik berdina egin izan banu zigortu egingo ninduketela. Horregatik, hobe ez egitea.

**Gainera, Espainiako komitearekin ere ez zera gustura geratu.**

Ez, antolakuntza aldetik txinatarrek oso ondo prestatuta dute guztia, baina gure komiteak ez du antolakuntza ona izan. Inaugurazio ekitaldiko irudietan ikus zitekeen bezala, zorakeria izan zen hura. TVEko kamara ikusi bezain laster, kirolariak zoratu egin ziren eta han ez zen ezer errespetatu.

Bestalde, gure akreditazioarekin ezin genuen beste kirolik ikustera sartu. Sarrerak eskatu behar genituen gure komitean; baina, birritan eskatu genituen eta ezetz esan zigutenez, ez genuen gehiagotan eskatu. Hortaz, telebistaz ikusi ditut beste kirolak.

**Inaugurazio eta amaiera ekialdiak ikusteko aukera izan duzu?**

Inaugurazio ekitaldia bakarrak ikusi dut, amaierakoa ezin izan nuen ikusi. Izugarria izan zen inaugurazio ekitaldia; azken finean, txinatarrek, euren irudia Joko hauetan saldu behar zuten, hori zen euren helburua. Eta, ondo aprobetxatu dute aukera duten guztia emateko. Oso ondo egin dute.

**Villa Olinpikoan bizi izan zara. Nolako giroa bizi da han?**

Esaten dute, edo behintzat mitoa da horrelako lekuetan asko ligatzen dela. Lehenengo egunean ez genuen girorik ikusten eta gure artean komentatzen genuen hori guztia mito bat zela. Baina, egunak aurrera joan ahalia, konturatu gera egia dela. Kirolarieiek lehiatzeari uzten diotenean ligatzen hasten dira.

Ezagunik ikusi dugun? Ez, Espainiakoak bakarrik... eta, baita, Kobe Bryant! Herrialde bakotzak gune bat dauka, eraikin bat edo bi; hortaz, normalean bakotza bere herrialdeko kideekin ibiltzen da.

**Kirolari bezala, zure ustez, nor izan da aurtengo izarra?**

Usain Bolt atleta jamaikarra, duda barik. Errekorra nola egin zuen ikuslea izugarria izan zen. Hori bai, apur bat harroa dirudi eta kirolean hori ikuslea ez da polita. Baina, gaitasun fisiko izugarria dauka.

**"Usain Bolt jamaikarrak errekorra nola hautsi zuen ikuslea izugarria izan zen"**

**"Nadalekin atera dut argazkia; mutil jatorra dirudi. Gure aldamenean zeukan logela"**

**Esaten dute, Usain Bolt eta Michael Phelps izan direla iza-rak.**

Badirudi, Michael Phelps umilagoa dela. Baina, kiroletan perfektua denez, beste akatsen bat ateratzen diote eta esaten dute motz zamarra dela mutila. Beti ateratzen dituzte akatsak.

**Izarren bat aurrez aurre ikus-teko aukera izan duzu?**

Bai, Rafa Nadal tenis jokalaria. Gure ondoan zeukan logela, eta izugarria zen zenbat jende joaten zitzaien. Beste herrialdetakoek Nadalek non lo egiten zuen jakin zutenean argazkiak ateratzen zortzen ziren.

**Eta zuk, atera duzu argazkirk?**

Bai, Nadalekin atera dut. Egia esan, mutil jatorra dirudi. Iku-teko zen zenbat jende joaten zitzaien: bazkaltzen ere ez zioten uzten.

**Izan duzu anekdotarik?**

Taxietan, adibidez, beti geratzen zitzaien zerbaite. Taxi gidariak beti galtzen ziren. Lehenengo egunean Espainiako etxe-an harrera izan genuen eta hara joateko ere galdu egin ginen.

**Ikasi duzu txinatarrez?**

Bai, nijao (eskerrik asko) eta beste lau berba.

**Burua Londresen duzu?**

Bai, Londresera begira nago eta baita mundialtara ere.

*Eraman dotoretasuna  
zure etxera*

 **gelatzu** s.l.

Zubillaga auzoa 1  
OÑATI  
Tel.: 943 71 63 22  
Faxa: 943 78 15 51



## > ALBERTO ELORTZA

Zelai Zabal jatetxeko Alberto Elortza sukaldari oñatiarrarekin izan gara aste bukaeran. Ehun urtetik gora dituen jatetxea zuzentzen du Albertok > 29



## > LEHIAKETA

Oporrak amaituta argazkiekin gozatzeko ordua > 25-26

## > DANBAKA

Danbaka musika lehiaketarako izenematea zabalik dago > 27



URTEURRENA Txomin Amasorrainen jaiotzaren 100. urteurrenean, haren ibilbidearen gaineko erakusketa zabaldu dute Bergarako Aroztegi aretoan.

TXOMIN AMASORRAIN

# Txomin Amasorrain: idatzizko zein irudizko kronista Aroztegin

Txomin Amasorrainen jaiotzaren 100. urteurrenean haren omenezko erakusketa Aroztegin

Argazkia, idatziak, filmak eta bestelako materiala ikusgai irailaren 18ra arte

### EDU MENDIBIL > BERGARA

Bera bakarrik falta zen. Juan Luis Bikuña kazetariak ederto azaldu zuen erakusketaren inaugurazioan: "Aroztegi kanpoan Txominen motor hotsa entzutea baino ez da falta. Txomin hemen dago, sartu da aretora eta gure artean dago, esku baten antzerki lanak dauzkala eta bestean *Celtas* zigarrotxo bat, begiak bizi bizi eta irripartsu..."

Aroztegi aretoa jendez lepo bete zen egubakoitzean Txomin Amasorrainen (1908-1973) erakusketaren inaugurazioa. Haren familiak erakusketa bikai-

na prestatu du euskaltzale eza-gunaren jaiotzaren 100. urteurrenean. Argazkiek protagonismo nagusia duten arren, beste hainbat material ere jarri dute ikusgai: *Zeruko Argia* aldizkarian argitaratutako *Izkirimiriak* eta bestelako idatziak, filmak, Ernai antzerki taldeak eginiko emanaldien kartelak, Amasorrainek erabiltzen zuen idazmakina edo euskal gramatika eta matematikak uztartzen dituen *makinak* bitxia. Anjel Lertxundi idazlearen hitzetan, "ingeniari baten lana zen hura, eraikuntza konplikatu baten eskema soiltzen

zuen miraria. Rubikek bere kubo miresgarria asmatu zuen garaia zari naiz. Mundu guztia miretsita zebilen ingeniarri hungaria-rraren asmakizunarekin, baina Txominek bere eskemekin osatutako euskal aditzaren sistema ez zen Rubiken kuboa baino asmakizun apalagoa. Ez naiz sekula gramatika zalea izan, baina Txominek, bere jardun gogotsuarekin, ia jarri ninduen nirea ez zen bide bat jorratzen".

Lertxundi ez zen egubakoitzeko ekitaldian izan zen baina testu hori Amasorrainen omenez argitaratutako *Txomin Amaso-*

*rrain. 1908-1973. Denbora eta espazio baten testigantza liburuan* irakur daiteke. Lertxundirekin batera, besteak beste, Miguel Lazpiurrek, Amatiñok, Bikuñak, Martin Gallastegik, Estepan Plazaolak eta Urretxindorrak taldekoek kolaboratu dute liburuan. Garai bateko Bergara (irudi gehienak 1950-1965 bitartekoak dira) eta Amasorrainen bizitza eta hark utzitako ondarea ezagutzeko mimo handiz egindako lana.

Esan bezala, Aroztegi txiki geratu zen egubakoitzean. Amasorraindarrekin batera (tartean



Aroztegi aretoa jendez lepo bete zen Txomin Amasorrainen erakusketaren inaugurazioan. Alai Taldeak hiru kanta eskaini zituen egubakoitzean. Erakusketa irailaren 18ra arte dago zabalik.



Ernai taldean ibilitakoak. Zutik, Gotzon Bikuña, Migel Lazpiur, Markos Gabilondo, Juan Luis Bikuña, Arantxa Ibarzabal, Xabier Zezeaga eta Migel Angel Ibarzabal. Behean, Iñaki Arriaran, Mertxe Elkoroberezibar, Eusebi Usabiaga, Mari Angeli Agirrebeña eta Kontxi Aranguren.

JUANJE AMASORRAIN

## Idatzizko zein irudizko kronista Aroztegin

(23. orrialdetik dator)

Eusebi Usabiaga, Txominen alarguna), lagunak eta herritar morodo bat izan ziren. Bildutakoek pixka bat ere *sufritu* behar izan zuten, aretoan egiten zuen bero itzelaren erruz. Izerditan blai bukatu zuten guztiek.

Ramon semearen eta Juan Luis Bikuñaren hitzen ondoren, Alai Taldearen emanaldia etorri zen. Hiru kanta eskaini zizkieten Alai Taldekoek bildutakoel. Bien bitartean, ikusleek Aroztegin jarritako argazkiekin gozatu ahal zuten.

### EUSKALTZALE PETO-PETOA

Zaila da Txomin Amasorrainek jorratutako alorren artean bakarra nabarmentzea. Dena dela, egubakoitzean Aroztegin batutako lagunak bat etorri ziren euskaltzale peto-petoa zela azpimarratzeko orduan. Frankismoa

indarrean zegoen urte haietan ez da meritu makala. Arrasaten jaioa, Eusebio eta Soteraren semerik zaharrena zen Txomin eta aita Bergarako Zerrajerako arduradun jarri zutenean, Bergara etorri ziren bizitzera; hain zuzen, Altos Hornoseko bulegoen eraikinean jarri zen familia bizi izaten, Txominek lau bat urte zituenean. Ikasketak bukatu ondoren, Espainiako Gerraren aurretik Zerrajeran hasi zen, Txapako zuzendari, eta gerra ostean, 1939an ezkondu zen Eusebi Usabiagarekin, Arantzazun. Zortzi seme-alaba izan zituzten. Elementala ireki zutenean, 1944an, Don Miguel Altunaren irakasle izateko proposatu zuen eta bertan jardun zuen urte askotan. Udaletxeko zinegotzi ere izan zen 1949tik 1952ra, Jose Manuel Martinez Zumalabe alkate zela.

### LEHEN KAMERA

Aitak oparitu zion lehenbiziko argazki kamera, Txominen 22 urte zituenean. Orduko argazkizaleen topaleku zen Txomin Amasorrainen ganbara, han errebe-

latzen baitzituen plakak eta erroiliak. Aroztegin dauden argazkiak ikusita argi dago argazkilari bikaina zela. *Leyca* kamera batekin ateratakoak dira argazki gehienak. Idatzizko zein irudi kronista izan zen nolabait. Argazkilaritza eta mendia izan ziren bere zaletasun nagusienak agian.

Aitzindaria zentzu askotan, zortzi milimetroko pare bat zine kamera ere izan zituen. Aroztegin material guzti horren zati bat ikus daiteke. Hain zuzen ere, material guztiarekin 20 bat minutuko filma osatu duen familiakoek. Erakusketeta irauten duen bitartean, irailaren 18ra arte, ikusgai izango da Aroztegin. Zuri-beltzean filmatutako irudi bitxiak dira: mendiko imajinak, Zerrajerako langileen San Marcos eguneko ospakizunekoak, San Kristobalen auto doto-reak bedeinkatzen zituztenekoak, San Migeleko eta Osintxuko jaietan hartutako irudiak edo txirrindulari lasterketa batekoak, ia guztia zuri-beltzean zenekoak. Hain zuzen, denbora eta espazio baten testigantza ematen duten irudiak.

## Euskaltzale militante baten ibilbideari gainbegiratua Aroztegi aretoan

Euskaltzale militantea. Halaxe definitu zuen Amatiñok Txomin Amasorrain egubakoitzean. Maisu gutxi zegoen Txominen garaien eta bera zen horietako bat. Anjel Lertxundik ere antzeko hitzak eskaientzen dizkio: "Txomin, ororen gainetik, memoria zen niretzat, ni orduan deskubritzen ari nintzen mundu baten lekukoa. Gerra ostean euskaltzaletasunak izan zuen ibilbide zail katakunbetakoari buruzko jakin-mina nuen nik, eta Txomin oso iturri oparoa nuen horretarako. Gainera, niri orduan gehienetxoen gustatzen zitzaizkidan bi kontu (idaztea eta antzerkia) maite zituela ikusirik, bi gai horiek genituen gure jardunen ardatz".

Bai, antzerkia gustuko zuen Txominek eta 1965ean Ernai Teatro Taldearen sortzailetariko bat izan zen, eta taldearentzat gidoiak eta itzulpenak egin zituen. Berak *apuntadore* lanak egiten zituen sarritan, Aroztegiko argazkietako baten ikus daitekeen moduan. Ernai taldean ibilitako zenbait lagun elkartu ziren berriro egubakoitzean, aspaldiko partez. Era berean, Novedadesen eta beste hainbat aretotan egindako emanaldien kartelak ikus daitezke.

*Zeruko Argia* aldizkarian, bestalde, *Izkirimiriak* deituriko sailean idatzi zuen sarritan. Euskalgintzara egindako ekarpen oparoan ezin dira albo batera utzi Urretxindorrak taldea (1966an Txominen ganbara inguruaren sortutakoa) edo 1960ko hamarkadan, Josu Oregirekin batera, Elementalean emandako euskal eskolak. Euskaltzale militante honen ibilbide oparoaren zati bat Aroztegin duzue ikusgai.

Erakusketa irailaren 18ra arte izango da zabalik, martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan goizez bakarrik, 12:00etatik 14:00etara.




Ramon Amasorrain



Juan Luis Bikuña



Luis Alberto Aranbarri 'Amatiño'



Agustín Amasorrain

Oso pozik gaude erakusketaren inaugurazioan herriaren partetik jasotako erantzunarekin. Kolaboratu duten guztiei eskerrak emateko beharrean gaude. Material asko utzi zuen aitak eta ez da erraza gertatu aukeraketa egitea. 2.000tik gorako argazkien artean, 50 aukeratu ditugu eta filmak DVD formatura pasatzen ari gara, Euskadi Filmotekaren bidez. Oraingo erakusketa hau antolatzeko ilusioa geneukan; aurrerantzean ikusiko dugu zer egin material guztiarekin.

Nire usteaz, ezin da Txominen alderdi hau edo hura nabarmendu. Txomin dena zen: kazetari, ingeniar, argazkilari... Aroztegiko erakusketa honetan argazki bakarra sumatu dut faltan: Txomin eta Jose Alvarez arbola baten gainean eztabaidan. Halaxe gogoratzen ditut biak, abioiek zela egin zezaketen hegan eta barkuak nola demonstre ibiltzen ziren uretan, halako gauzak diskutitzen. Pozgarria izan da orduko lagunekin elkartzea eta Bergaran halako erakusketa bat antolatzea.

*Zeruko Argia* aldizkarian 18 urterekin hasi nintzen, Eibarko berriemaile eta sasoia hartan ezagutzen nuen Txomin. Orduan kazetaritzan hasitakoentzat erreferente bat zen Txomin eta askotan etortzen nintzen Altos Hornoseko etxera eta hantxe egoten ginen. Guk galdetu eta berak erantzun. *Apaizik* onena bera zen. Euskaltzalea izatea ez zen erraza orduan eta Txomin militantea zen horretan. Ezagutzen ez nuen Txomin bat ezagutu dut gaur eta ikaragarria da hark utzitakoa.

Lehengusu zaharrenetarikoa naiz eta ondoren datorrenentzat zerbait polita uztea izan da gure asmoa. Han eta hemen sakabanatutako materiala batu eta Txominek jorratutako alderdiak jaso ditugu liburu baten, haren ibilbidearen adierazgarri. Bera aldatzen joan zen eta bere zaletasunetan ikusten da hori; argazkilari, antzerkigile, Urretxindorrak taldeko bultzatzaile..., gauza asko egin zituen eta liburuan hori jaso nahi izan dugu, horren testigantza uzteko.



# UDAKO ARGAZKien ASTELEHENeko GOIENKARIA IV. LEHIAKETA




Argazki guztiak fotoblog honetan: [www.goiena.net/blogak/argazkiak](http://www.goiena.net/blogak/argazkiak)



**DUBROVNIK.** Aurtengo uda hasieran Dubrovnik-en ateratako argazkia. Hemen ikus daitekeen bezala bere kaleetan ibiltzea Erdi Arroa itzuli bat egitea da.  
*/Argazkia: Beatriz Agirre Uncilla /Bergara*



**OLATUA.** Ekainean egun pasa Donostiarra joan ginen, pasiatzen Haizearen Orrazira iritsi ginen eta honako argazkia atera genuen.  
*/Argazkia: Jesus Mari Alonso /Arrasate*



**TXOKO LASAIA.** Txoko lasai bat, Eskoriatzan, oraindik geratzen dira banakaren batzuk. Iburutz errekatxoan ateratako argazkia.  
*/Argazkia: Juan Miguel Pagalday Cillaurren /Eskoriatza*



**GERNIKA.** Gernikan atera genuen. Uztailoko txango baten egindako bisitan, bertako historia gogoratzeaz gain barre pixkat egiteko argazki ezberdin bat egitera animatu ginen.  
*/Argazkia: Mikel Ezkurra Mayor /Arrasate*

## Baldintzak:

- Udal argazkiak izan behar dira: aurtengoak edo beste uda batekoak. (Argitaratu gabeak)
- Debagoineneko edozein partea hartz ahal izango du (ez da adin mugarrak izango).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta.
- Bidali ahal izango dira e postaz [argazkiak/goiena.com](http://argazkiak/goiena.com) helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
- Argazkiak jasotzeko azken eguna, 2008ko irailaren 17a.

## Sariak:

- 1. saria: Olympus E-510 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendarren eskutik.
- 2. saria: Astebukaera bateko egonaldia bi pertsonentzat, Arrasate Bidaia-ekin eskutik.
- 3. saria: bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxeen. .



## Babeslea:



## Laguntzaileak:






# UDAKO ARGAZKien ASTELEHENeko GOIENKARIA IV. LEHIAKETA



Argazki guztiak fotoblog honetan: [www.goiena.net/blogak/argazkiak](http://www.goiena.net/blogak/argazkiak)



**TXIMELETA.** Baztango zelai batetan aurkitu nuen tximeleta eder hau. Ustekabean harrapatu nuen, bere tronpa luzaturik lorearen nektarra xurgatzen. /Argazkia: Itziar Egiruren /Oñati



**LOCH LOMOND.** Aurtengo udan Eskozian Loch Lamond lakuaren atarako argazki bat. Paraje zoragarria benetan. /Argazkia: Gorka Bikuña Martínez de Zuatzzo /Oñati



**BARTZELONAKO PORTUA.** Bartzelonako portuan aterateko argazkia. La Rambla paseoaren ostean liburutxo bat irakurtzen egoteko leku ederra. /Argazkia: Joseba Gabilondo Markes /Eskoriatza



**PORUGALGO EZKONTZA.** Uztailaren 26an eskondu ziren Raul eta Laura, hona hemen nolako neska ederrak Portugaleteko Puente Colgante aurrean. /Argazkia: Belén Zumalde Barrena /Oñati



**TORRES DEL PAINÉ.** 2005eko udan Patagonian (Txile). Egun horretan luzitzea erabaki zuela ama naturak jakinda aurreko egunean kriston euri jasa eduki genuela. Bertan *Los cuernos del Paine* ikus daitezke, gaina ilunago dutenak; eskumarago, atzean *Las torres del Paine* eta ezkerrean edurtuta Punta bariloche. /Argazkia: Gaizka Marzan Altube /Bergara

MUSIKA > LEHIAKETA

# Hilaren 19an bukatzen da Danbakan parte hartzeko izena emateko epea

Talde bakoitzak hiru kantu original eta dokumentazio osatua aurkeztu beharko ditu e-postaz, posta arruntez edo Goienaren egoitzatan

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Hiru aste geratzen dira Danbaka Musika Lehiaketan parte hartu ahal izateko izena emateko. Hain zuzen ere, irailaren 19an bukatuko da epea. Lehiaketan parte hartu gura duten Debagoieneko, Debabarreneko eta Durangaldeko taldeek hiru bide dituzte kantu originalak bidaltzeko: alde batetik, e-postaz eta kantuak MP3 formatuan, [danbaka@danbaka.com](mailto:danbaka@danbaka.com) helbidera; beste alde batetik, posta arruntez eta kantuak CD baten honako helbide honetara: Goiena Komunikazio Zerbitzuak, DANBAKA 132



Argazkian, Bergarako Aby Kem berigararrak, azken irabazoleak.

GOIENKARIA

posta-kutxa, 20.500 Arrasate; edo bestela, Goienaren Bergarako edo Aretxabaletako egoitzatarera eraman daitezke kantuok.

## SEI KONTZERTU

Hirugarren edizioan 24 talde lehiatuko dira: 14 Debagoienekoak eta gainerakoak aipatutako

beste eskualdetakoak. Hortaz, aurten, bost kontzertu beharrean, sei izango dira, eta gero, finala. Lehen kontzertua urriaren

17an izango da Espaloia Kafe Antzokian, eta finala, urtarrilaren 16an toki berean.

Epaimehaia musika munduan adituak diren bost pertsonak osatuko dute: Itziar Iturbe, Cool Panic taldeko abeslaria; Iñaki Bengoa, Arrasateko Shot grabazio estudioko arduraduna; Yul Bolinaga, Rip talde ohiaren gitarrista jolea; Iban Arantzabal, Goienako Telematikako zuzendaria; eta Iker Barandiaran, Danbaka koordinatzailea.

## BIGARREN EDIZIOKO DVD-CDA

Bestalde, Danbaka eta Gaztelupeko Hotsak musika lehiaketako bigarren edizioaren gaineko DVD-CDA kaleratu dute. Bi orduko DVDA, lehiaketan parte hartu zuten 20 taldeen kanta bana eta haiek egindako elkarrizketak bildu dituzte. Gainera, argazkiak, adituen iritziak eta lehen edizioko irabazole Sharon Stoner taldearen gaineko ikusentzunezkoak ikus daitezke. CDan 20 taldeen abesti bana jaso dute. DVDCDa irailean jarriko dute salgai.

ZINEMA > FILM LABURRAK


# 'Asämara' eta 'On the line', Moriarti produkzio etxeeko lanak, Kimuak 2008an

Jon Garañok eta Raul Lopezek zuzendu dituzte aipatutako lan horiek

Fikzioa, animazia eta dokumentala azaltzen dira aurtengo katalogoa

E.M. > BERGARA

Aitor Arregi oñatiarra partaide den Moriarti Produkzioak etxearen bi lan Kimuak 2008ko egitarauan aukeratuak izan dira. Hain zuzen ere, *'Asämara'* dokumentala eta *'On the line'* dokumental faltsua dira aipatutako lan horiek. Asämaral "lan egitera bidali" esan nahi du etiopieraz eta, bertan, Afrikan lan egin beharrean aurkitzen diren haurren errealtitatea aztertzen da, ikus-puntu bortitzka, adeitsua edota errukiorra erabili gabe. Jon Garañok eta Raul Lopezek zuzendutako lana da, 9 minutuko iraupeneko.



Aitor Arregi oñatiarrak Moriarti Produkzioak-en hartzen du parte.

GOIENKARIA

*'On the line'* lanean, Nafarroako Errege Bardeak Ameriketako Estatu Batuen eta Mexikoren arteko muga bihurtzen dira; bertan, etorkin mexikarrek muga igarotzea galaraztea helburu

duton boluntario armatuak aurkituko ditugu. 12 minutuko iraupena du dokumental faltsu honek, *Adam* protagonistaren eguneroa betebeharrok azaltzen duena. Jon Garañok zuzendutakoa da.

## ZINEMALDIAN

Kimuak 2008ko film laburra irailean Zinemaldian aurkeztuko dituzte. Fikzioa, animazia eta dokumentala azaltzen dira aurtengo katalogoa, zortzi lanekin.

> TURISMOA

## Oteizaren eta Arantzazuren arteko harremana bisitetan

Jorge Oteiza eskultore ezagunak Arantzazurekin izan zuen harremana hobeto ezaugatzeko aukera dago Mankomunitateak antolatu dituen bisita gidatuetan.

Aipatutako bisita gidatuak egunero dira, 12:30ean, 2 euroren truke. Argibideak 943 71 89 11 telefono zenbakian jaso daitezke.

Oteizaren jaiotzaren 100. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien barruan kokatzen dira bisitak.

> ZINEMA

## 'El guía del desfiladero' ostiralean Monterron parkean

*El guía del desfiladero* filma emango dute egubakoitzean, hilak 5, Monterron parkean, 22:30ean. Egokia da 13 urtetik gorakoendako. Antzinako Amerikara vikingoak iritsi zireneko garaiaren dago girotuta.

Marcus Nispelek zuzendutako filma da eta izenburu bera duen 1987ko filma du oinarri gidoiak. Filmaren iraupena 99 minutuko da. Uztailaren estreinatu zuten *El guía del desfiladero*.

**1/ ETXEBIZITZAK****101. SALDU**

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza erdialdean. Prezio negoziagarria. Saltzeko presarekin. 659 64 67 38.

**Bergara.** 50 metro koadroko etxebizitza salgai Zabalotegiñ. Sukalde-jangela, hiru logela, komuna, balkoa eta sotoa. Erdi jantzia. Prezio onean. 635 72 67 11.

**Luz Saint Sauveur** ( Frantziako pirinioan). Etxebizitza salgai. 670 49 84 28 edo 649 03 52 95.

**Oñati.** 105 metro koadroko duplexa salgai. Prezioa adosteko. 635 71 41 39.

**Oñati.** 120 metro koadroko etxebizitza salgai erdialdean. Guztiz eraberrituak. Trasteleku eta lursailarekin. 650 60 12 14.

**Oñati.** 80 metro koadroko etxebizitza salgai Zubillaga auzoan. Prezioa adosteko. 635 71 41 39.

**Oñati.** Duplexa salgai eraikin berrian, Zubiberri kalean. 606 53 52.

**Oñati.** Tasatutako etxebizitza salgai herri erdialdean. 105 metro koadro. Eraikinen. Aldaketa egiteko aukera. Zozketarik gabeo aukera paregabea. 651 70 80 04.

**103. ERRENTAN EMAN**

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Ferrerias kalean. Logela bat, sukaldesa, egonge-la eta komuna. 530 euro. 619 34 88 52.

**Arrasate.** Etxebizitza errentan Erguinen, eskolatik gertu. Ika-sle edo biktatentzat. Laura/Iose Angel. 629 67 94 88 edo 615 74 32 79.

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan Jose Luis Iñarra kalean, Altamiran. 639 96 01 21.

**Gasteiz.** Hiru ikaslerendako etxebizitza errentan ematen da. Unibertsitatek gertu. 647 92 75.

**Vieux Boucau** (Landak). 10-12 pertsonarentzako etxe indibidua-ral errentan. 2008an guztiz berrituak. Bost logela, bi komun, terraza, lorategia eta barba-koak. Astebea gutxienez. Hon-

dartzatiketa herritik gertu. 669 00 75 49.

**104. ERRENTAN HARTU**

**Arrasate.** Bikote batek etxebizitza edo logela hartuko luke errentan. Ahal izanez gero erdialdean. 666 21 88 95 edo 943 77 13 10.

**Arrasate.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Iñaki. Deitu telefono honetara: 608 49 89 93.

**Bergara.** Bi logelako etxebizi-tza hartuko nuke errentan. 686 37 76 79.

**Bergara.** Etxebizitza behar du errentan herri erdialdean. Igogailuarekin eta altzairik gabe. 679 31 62 68.

**Bergara.** Etxebizitza hartuko genuke errentan familia baten-dako. 650 62 12 94 edo 685 70 76 25.

**Bergara.** Neska batek etxebizi-tza hartuko luke errentan. Mar-ta. 617 00 90 83.

**Bikote gaztea** etxebizitza erren-tan hartzeko prest. Bergara, Antzuola, Soraluze edo Osi-ntxun. 663 46 93 60 edo 660 47 58 58.

**Debagoiena.** Bi edo hiru logelako etxe hartuko nuke errentan. Presazkoa da. Deitu telefono honetara: 617 88 20 93.

**Debagoiena.** Bilogak edo gehia-goko etxebizitza behar du errentan. Presazkoa. Deitu telefono honetara: 630 31 84 34.

**Debagoiena.** Eskoriatza, Arra-sate edo Aretxabaletan etxe txiki bat urte osorako errentan hartu nuke. Deitu telefono hone-tara: 669 63 93 29.

**105. ETXEAK OSATU**

**Arrasate.** Bi pertsona behar dira Eguzki dorrean etxebizitza osatzeko. 620 52 94 98.

**Arrasate.** Logela hartuko nuke errentan. Deitu telefono honetara: 610 02 65 39.

**Arrasate.** Logela bat hartuko nuke errentan. Iñaki. Deitu telefono honetara: 608 49 89 93.

**Arrasate.** Logela bat hartuko nuke errentan. Iñaki. Deitu telefono honetara: 608 49 89 93.

**Bergara.** Bolun logela ematen da errentan, sukaldakoa auke-rarekin. Natalia. Deitu telefono honetara: 670 85 86 68.

**Bergara.** Logela emango nuke errentan. 650 62 12 94.

**106. ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**

- Zabalotegi. 80 m<sup>2</sup>. Eguzkitusa. Bista onak.
- Simon Arrieta 80 m<sup>2</sup>. Eguzkitusa. Ondo. Berruita.
- Zubietza 80 m<sup>2</sup>. Berruita. Ganbarekin.
- Elusu baserria. Berruita. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m<sup>2</sup>. Berruita. Gazeantza.
- Ibargari 74 m<sup>2</sup>. Ondo. Garajea aukera.
- Zubiaurre 67 m<sup>2</sup>. Berruita. Eguzkitusa.
- Matxiategi 61 m<sup>2</sup>. Prezio ona. Eguzkitusa.
- Zubalotegi 50 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Barrenkale 82 m<sup>2</sup>. Berruita.
- Simon Arrieta 80 m<sup>2</sup>. Duplexa. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m<sup>2</sup>. Duplexa. Oso ondo.
- Zubiaurre 52 m<sup>2</sup>. Gazeantza.
- Azkaruneta 69 m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- San Pedro 65 m<sup>2</sup>. Ganbarekin.
- Artekalde 62 m<sup>2</sup>. Berruita.
- Zubiaurre 58 m<sup>2</sup>. Eguzkitusa.
- Kruz Gallastegi 65 m<sup>2</sup>. Eguzkitusa.
- Zubiaurre 52 m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- Masterreka 92 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Osintxu 62 m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- San Lorenzen etxe berriak

**Antzuola:**

- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Etxe berriak 178 m<sup>2</sup>. Duplexak eta adosatuak.

**Elgeta:**

- San Roke 72 m<sup>2</sup>. Berruita.
- San Roke 80 m<sup>2</sup>. 80 m<sup>2</sup>-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m<sup>2</sup>. Berruita.

**Oñati:**

- Kale Zaharra. 62 m<sup>2</sup>. Terrazarekin. Ortu.
- Lezesarri. 75 m<sup>2</sup>. Eguzkitusa. Erdi berruita.
- Moyua. 75 m<sup>2</sup>. Oso aukera ona.

**IRAGARKI SAILKATUAK****1. ETXEBIZITZAK**

101. SALDU  
102. EROSI  
103. ERRENTAN EMAN  
104. ERRENTAN HARTU  
105. ETXEAK OSATU

106. ETXEBIZITZAK SALGAI

107. ETXEBIZITZAK SALGAI

108. ETXEBIZITZAK SALGAI

109. ETXEBIZITZAK SALGAI

110. ETXEBIZITZAK SALGAI

111. ETXEBIZITZAK SALGAI

112. ETXEBIZITZAK SALGAI

113. ETXEBIZITZAK SALGAI

114. ETXEBIZITZAK SALGAI

115. ETXEBIZITZAK SALGAI

116. ETXEBIZITZAK SALGAI

117. ETXEBIZITZAK SALGAI

118. ETXEBIZITZAK SALGAI

119. ETXEBIZITZAK SALGAI

120. ETXEBIZITZAK SALGAI

121. ETXEBIZITZAK SALGAI

122. ETXEBIZITZAK SALGAI

123. ETXEBIZITZAK SALGAI

124. ETXEBIZITZAK SALGAI

125. ETXEBIZITZAK SALGAI

126. ETXEBIZITZAK SALGAI

127. ETXEBIZITZAK SALGAI

128. ETXEBIZITZAK SALGAI

129. ETXEBIZITZAK SALGAI

130. ETXEBIZITZAK SALGAI

131. ETXEBIZITZAK SALGAI

132. ETXEBIZITZAK SALGAI

133. ETXEBIZITZAK SALGAI

134. ETXEBIZITZAK SALGAI

135. ETXEBIZITZAK SALGAI

136. ETXEBIZITZAK SALGAI

137. ETXEBIZITZAK SALGAI

138. ETXEBIZITZAK SALGAI

139. ETXEBIZITZAK SALGAI

140. ETXEBIZITZAK SALGAI

141. ETXEBIZITZAK SALGAI

142. ETXEBIZITZAK SALGAI

143. ETXEBIZITZAK SALGAI

144. ETXEBIZITZAK SALGAI

145. ETXEBIZITZAK SALGAI

146. ETXEBIZITZAK SALGAI

147. ETXEBIZITZAK SALGAI

148. ETXEBIZITZAK SALGAI

149. ETXEBIZITZAK SALGAI

150. ETXEBIZITZAK SALGAI

151. ETXEBIZITZAK SALGAI

152. ETXEBIZITZAK SALGAI

153. ETXEBIZITZAK SALGAI

154. ETXEBIZITZAK SALGAI

155. ETXEBIZITZAK SALGAI

156. ETXEBIZITZAK SALGAI

157. ETXEBIZITZAK SALGAI

158. ETXEBIZITZAK SALGAI

159. ETXEBIZITZAK SALGAI

160. ETXEBIZITZAK SALGAI

161. ETXEBIZITZAK SALGAI

162. ETXEBIZITZAK SALGAI

163. ETXEBIZITZAK SALGAI

164. ETXEBIZITZAK SALGAI

165. ETXEBIZITZAK SALGAI

166. ETXEBIZITZAK SALGAI

167. ETXEBIZITZAK SALGAI

168. ETXEBIZITZAK SALGAI

169. ETXEBIZITZAK SALGAI

170. ETXEBIZITZAK SALGAI

171. ETXEBIZITZAK SALGAI

172. ETXEBIZITZAK SALGAI

173. ETXEBIZITZAK SALGAI

174. ETXEBIZITZAK SALGAI

175. ETXEBIZITZAK SALGAI

176. ETXEBIZITZAK SALGAI

177. ETXEBIZITZAK SALGAI

178. ETXEBIZITZAK SALGAI

179

ASTE BUKAERA...

## Alberto Elortzarekin



Arantzazu inguruko lasaitaunaz gozatzen du Alberto Elortzak jatetxea itxia dagoen egunetan.

JOSETXO ARANTZABAL

# "Etxeko isiltasuna gustatzen zait jatetxea itxita edukitzen dugunean"

Alberto eta Mariatxo Elortza anai-arrebak dira Oñatiko Zelai Zabal jatetxeko arduradunak

Urtarrilean ixten dute jatetxea eta Kanariar Uhartetara joaten da Alberto, emaztea eta alabarekin

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Alberto Elortza (Oñati, 1962) Arantzazu bidean dagoen Zelai Zabal jatetxeko nagusia eta sukaldaria da Mariatxo arrebarekin batera. Aitona-amonek zabaldutako jatetxearen hirugarren belaunaldia osatzen dute Elortza anai-arrebek.

Zelai Zabal jatetxeen lan eginen dutenen asteak ez dira gehienetan asteak bezalakoak, jatetxea bakarrik astelehenetan ixten dute-eta. "Astelehenetan etxeen geratzea gustatzen zait, bi izeba nagusi ditugu eta zainketa lanak partekatzen ditugu arrebak eta biok. Baina, batez ere, etxeen dagoen isiltasuna gustatzen zait: etxe barruan eta kanpoan dagoen lasaitasuna", dio Alberto Elortzak. Gainerako egunetan zala-parta da nagusi jatetxeen. "Eguna edukitzen ditugubazkariak; batez ere, Oñati eta Debagoieneko gainerako herrietako enpresatik etortzen zaizkigu bezeroak. Dena den, lan gehien aste bukaeratan egiten dugu". Karta bidez ematen duten janariak presatzeko talde sendoa du Alberto Elortzak. "Ni naiz aurpegia ematen duena, onerako zein txarre-

ra; baina, garbi utzi gura dut, talde profesionala osatzen dugula guztiok. Nire emazte Susana ere sukaldaria da, eta Donostiaro Maiderrek ere urte asko daramanta gurekin. Bestalde, zerbitzariak eta harrikoak egiten duten langileak ditugu", azaldu digu.

Sukaldean lan egiten duen taldearen kide kopurua handitu egiten da aste bukaeratan: "Personai gehiago elkartzen gara

sukaldean, batez ere ezkontzak ditugunean. Gure jatetxea tradizio handikoa da ezkontzak ospatzerako orduan, eta ia urte osor izaten ditugu ospakizunak".

### OPORRETARA, URTARRILEAN

Abuztuan zabalik egon da jatetxea, eta irailean nahiko lanpetuta egongo direla aurreratu digu Albertok: "Arantzazuko Ama Birjinaren bederatzurrena dela-eta

egunero egingo dugu lan irailaren 9ra arte. Erromes asko etorriko da elizkizunetan parte hartzera".

Ordutegi arraroa duen arren, urtarrilean jatetxea itxi egiten dute, eta oporetara joateko aprobetxatzen dute. "Hondartzat atsegina dugu, eta jeneralean Kanariar Uhartetara joaten gara, emaztea, alaba eta hirurok. Otsail erdialdera arte ixten dugu eta egonaldi luzeagoak egiteko aprobetxatzen dugu", esan digu.

Bestalde, egun bakarrako planak astelehenetan egiten ditu. "Mendira joatea atsegina dut; gainera, etxe inguruan paraje ederrak ditugu", dio.

Gazteagoa zenean Aloñako futbol jokalaria izan zela esan digu, baina orain kirol gutxiago egiten duela. Telebista bidez pilotu jarraitzen duela esan digu: "Dena den, Joko Olinpikoekin kirol berriak ezagutzeko aukera izan dut; besteak beste, igeriketa sinkronizatua".

Sukaldaritzarekin zerikusia duten liburuak eta aldizkariak irakurtzen ditu. "Eleberriak irakurtzeko ez dut denborarik".

### "Eguneko produktuekin garaiko produktuak tartekatzen ditugu jatetxeko kartan"

Zelai Zabal jatetxeen ez dituzte eguneko menuak eta plater konbinatuak ematen, kartarekin egiten dute lan. "Karta osoa dugu, zalantzaz barik; eta gustu guztiak asetzeko eskaintza zabala dugu. Okela ez dugu beti piper eta patatekin jartzen, edo arrainari patata egosia baino gehiago jartzen diogu. Alegia, gure plater guztiak goarnizio ezberdin dute. Dena den, garaiko produktuak erabiltegia gustatzen zaigu. Adibidez, orain entsalada egin dezakegu hegaluezarekin, baina udazkenean ehiza erabili dezakegu. Onddoak ere askotan erabilten ditugu", dio Alberto Elortzak.

Zelai Zabalek duen eskaintzaren berri dute jatetxera joaten diren bezeroak. "Gure etxera betiko bezeroak etortzen dira. Gehienak ezagunak ez diren bezeroak dira; baina, tarteka oso ezagunak direnak etortzen dira gurera; besteak beste, politikariak, kirolariak, aktoreak eta idazleak. Dena den, bezero guztiak berdin hartzen ditugu".

## kuxkuxeroa



Arantzazu Ezkibel

## Bukatu da... akabo!

**A**urtenguaak be fan diala! A pentساuko dau batek bai no gehixaak. Eta bai, hala da. Aurtengo oporrak bukatuta, berriro bueltan, lanian hasitta gauz. Jai usaina, baina, ez da falta egun honeittan gure herrixetan. Atzeko kaleko jaixak Oñatin, San Martinak Bergaran, San Migelak Aretxabaleta eta Oñatin eta Maritxu Kajoi Arrasaten.

Aretxabaletan abuztuan izan ditzutze jaixak, Andra Maixak. Aurtengo ekitaldi potentia Barricadan kontzertua izan da. Esan daue, jende

**Atzeko kaleko jaixetan Marx anaia pasiora etarako dittuzte, urteroko legez**

asko batu zala kontzertua ikusteko. Uste dot, ibarrian euzen danak Aretxabaletara fan ziala!

Atzeko kalen datorren aste bukaeran etarako dittuzte Marx anaia pasiora. Gainera, aurten omenaldi berezixa egongo da: Naparreneko Margarita zena omenduko daue. Oindiok lotu barik dauen arren, tartian dabitx Ruper Ordorika eta Txuletons taldekuak, adibidez.

Esan, egubakoitzian Surf Festa egon zala Oñatin. Bai, plaiarik egon ez arren, Oñatin Surf Festa itten da. Usako haizia izango dia... (oin, gainera, baywatch-a dau!). Han ebitzen jo eta fuego, bestiak beste, Lopezanaiak eta Peros sardinak erreten. Jendia gus-tora hartzen dittu holako jaixak, zorionak ba, eurei!

**PARTe HARTU**

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

**Tarte hau zure txokoa da, irakurle.**

Ekar ezazu argazkia eta azal-pena edo bidali honako helbidera:  
[astelehena@goiena.com](mailto:astelehena@goiena.com)



OÑATI

**Eider Quintas**  
Uztailaren 22an. Zorionak Eidrew!! Kuadrillakuen partetik!



ARETXABAleta

**Mikel Zurutuza Amozarrain**  
Uztailaren 22an. Familia eta lagun eta guztiak partetik zorionak zure laugarren urtebetetzean. Patxo handi bat!



ARRASATE

**Asier Azkarate Moreno**  
Uztailaren 23an, 8 urte. Nerea, Maialen eta familia guztiak partetik zorionak eta patxo haundi bat!



ARRASATE

**Andoni Azkarate Moreno**  
Uztailaren 23an, 8 urte. Nerea, Maialen eta familia guztiak partetik zorionak eta patxo haundi bat!



BERGARA

**Jon Garitano**  
Uztailaren 23an. Zorionak aitxitxa Juanito, aitxitxa Pedro, amama Rosa Mari eta lehengusu guztiak partetik.



OÑATI

**Izaskun Bolinaga Arabaola**  
Uztailaren 23an. Zorionak neskatalia hurrengo hamarkada honetan ondo ondo pasatzen dozun! Aimar, Jurgi eta Unai.



OÑATI

**Lur Gesalaga Legorburu**  
Uztailaren 24an, 2 urte. Zorionak pin-pilinpaua! Ondo pasau eguna eta patxo erraldoi bat familiakuen partetik.



OÑATI

**Larraitz Legorburu Errasti**  
Uztailaren 24an. Zorionak eta urte askotaroko Larra!! 34 besarkada zuretzat, famelia danan partetik.



ARETXABAleta

**Uxue Agirre**  
Uztailaren 24an, 4 urte bete dituzu printzes! Muxu handi handia zure lehengusu guztiak partetik. Ondo ibili!



ARRASATE

**Igone Mendizabal**  
Uztailaren 24-an betetzen ditu urteak. Besarkada haundi bat kuadrikuen partetik.



ARETXABAleta

**Claudia Diaz de Mendibil Azkotia**  
Uztailaren 25ean, 2 urte. Zorionak potxola! Txabolan ikusiko gara Argi eta Solirekin jolas-teko. Patxo handi bat. Naroa.



ARRASATE

**Ane eta Maddi Petreñas**  
Anek uztailaren 25ean, 6 urte. Maddik uztailaren 29an, 3 urte. Zorionak familiaren partetik eta patxo handi bana!!



OÑATI

**Usoa Fuente Lopez**  
Uztailaren 26an. Zorionak! Zure eguna ondo pasau dozulakuan muxu ta 20 tirakada kuadrikuen partetik!



OÑATI

**Ana Arkauz**  
Uztailaren 26an. Zorionak Politori! Patxo fuerte fuerte batzuk eta 32 tirakada belarri horreitik! Urte askotaroko. Zorionak etxe-kuan partetik. Muxuss guapetona!



ARRASATE

**Miren Otsoa**  
Uztailaren 27an, 7 urte. Zorionak familia guztiak partetik bereziki Jon anaieren partetik.



ARRASATE

**Ana Mari Kortabarria**  
Uztailaren 27an. Zorionak eta urte askotaroko, ama! Holaxe jarraitu urte askuan eta ez ahaztu gu beti prest gauzela Getaixara fateko. Laztan haundi bat etxekuen partetik!



**Itziar Lopez**  
Zorionak Itzi! Oso ondo pasau zure urtebetetze egunian! Muxus! Lagunak.




OÑATI

**Mikel Uriarte Agirre**  
Uztailaren 30ean. Zorionak eta muxu handi bat amatxo, aitatzoxa ta Julenen partetik!



ARRASATE

**Itsaso Berezibar**  
Uztailaren 30ean. Boss kontzertu bat emoteko dala Estrella tabernan, Zigarrolan of course. Animatzen? Zorionak eta bla, bla, bla!



OÑATI

**Inazio Arregi**  
Uztailaren 31ean. Bulegoko gizon bakarrari, Zorionak neska builosak partetik!



BERGARA

**Maialen Roman Rayas**  
Uztailaren 27an, 4 urte. Zorionak Paul, Araceli eta familia-koen partetik. Patxo handi bat.



OÑATI

**Xabat Azkoaga**  
Abuztuaren 1ean, 6 urte. Zorionak eta patxo haundi bat familiakoen partetik.



ARRASATE

**Marga Mercader**  
Abuztuaren 1ean urtebetetzea. Zorionak amama! Patxo pila, pila patata tortila! Unax, Allison, Julene eta Iratiren partetik.



OÑATI

**Saioa Arkonada Perez**  
Abuztuaren 1ean urtebetetzea. Zorionak Saio! Badakigu ondo ondo ospau duzuula zure Pitukirekin! Muxu handi bana bikote! Lagunen partetik.



ARRASATE

**Ainara Lozano Moyano**  
Abuztuaren 1ean. Zorionak zure familia guztiak partetik. 4 urte honezker! Badirudi atzo jai oinzelina...



ARRASATE

**Unai Unamuno**  
Abuztuaren 2an. Zorionak eta ondo pasa zure urtebetetze eguna, muxu handi bat denon partetik.



ARETXABAleta

**Iker Lopez Fernandez**  
Abuztuaren 5ean. Zorionak eta laztan handi bat ikertxo! Primeran ospatuko dugu denok zure lehenengo urte-txa. Muxu bat etxeko guztiak partetik!



OÑATI

**Maider Arregi**  
Abuztuaren 6an urtebetetzea. Zorionak, preioxoa! Kontuz! oasisetan "proxy horror"-ak be egoten dia!



BERGARA  
**Eneko Garitano**  
Abuztuaren 8an.  
Zorionak aitxitxa  
Fernando, aitxitxa  
Pedro, amama  
Kontxi, amama  
Rosa Mari eta  
Iehengusu guztien  
partetik!



ARAMAIO  
**Uxue Vilches Beitia**  
Abuztuaren 9an, 2  
urte. Zorionak eta  
patxo haundi bat  
Leire, Ainhoa, aita-  
txo eta amatxon  
partetik!



OÑATI  
**Maite Amondarain**  
Abuztuaren 10ean.  
Zorionak eta urte  
askotarako! Laztan  
haundi bat kuadri-  
llakuon partetik!



BERGARA  
**Miren Osa**  
Abuztuaren 18an.  
Zorionak Miren!  
Oporretatik bueltan  
biadan moduan  
zelebraukou! muxu  
potolo!



OÑATI  
**Ane Hernandez**  
Abuztuaren 19an.  
Zorionak eta urte  
askotarako! Laztan  
haundi bat.



BERGARA  
**Maite Corbal Romera**  
Abuztuaren 21ean,  
2 urte. Zorionak eta  
besarkada handi  
bat etxeko guztien  
partetik.




BERGARA  
**Alfonso Romera**  
**Etxeberria**  
Abuztuaren 22an.  
Zorionak tio Alfon  
eta besarkada  
handi bat etxeko  
guztien partetik!



BERGARA  
**Markel Arzelus Perez**  
Abuztuaren 22an.  
Zorionak eta muxu  
handi bat etxeko  
aldetik!



ARRASATE  
**Felix Uribetxebarria**  
**eta Markel Aranburu**  
Abuztuaren 26 eta  
28an. Zorionak  
bikote eta urte  
askotarako! Patxo  
mila eta belarritik  
tira pila! Etxeko  
partetik.



OÑATI  
**Iñaki**  
**Barrutiabengoa**  
Abuztuaren  
27an.  
Zorionak  
eta urte asko-  
tarako!



OÑATI  
**Gorka Sanchez**  
**Gonzalez**

Abuztuaren 28an,  
3 urte. Etxeko  
partetik, zorionak  
eta patxo haundi  
bat!



**Nerea Guerrero Bermejo**  
Aramaio > 3,270 kilo. Uztailaren  
13an. Gurasoak: Virginia (Aramaio) eta  
Jose Antonio (Aramaio). Argazkian,  
gurasoekin eta Iker nebarekin.



**Alaitz Heriz Ibabe**  
Arrasate > 3,250 kilo. Uztailaren  
16an. Gurasoak: Osane (Arrasate)  
eta Joseba (Eskoriatza). Argazkian,  
Alaitz jaioberria, sehaskan lo.



**Odei Gonzalez Gambre**  
Arrasate > 3,450 kilo. Uztailaren  
16an. Gurasoak: Miriam (Arrasate)  
eta Mikel (Arrasate). Argazkian,  
Odei gurasoekin.




**Priscila Thais de Jesus Mendez**  
Arrasate > 3,350 kilo. Uztailaren  
13an. Gurasoak: Cristina (Bergara)  
eta Sandro Sebastian (Bergara).  
Argazkian, Priscila amarekin.



OÑATI  
**Leire Lizarralde**  
**Lizarralde**  
Abuztuaren 25ean.  
Zorionak eta urte  
askotarako!  
Laztan haundi bat  
kuadrillakuan par-  
tetik!




ARRASATE  
**Iñaki**  
**Barrutiabengoa**  
Abuztuaren  
27an.  
Zorionak  
eta urte asko-  
tarako!



**Ane Errasti Korkostegi**  
OÑATI > 3,800 kilo. Abuztuaren  
28an. Gurasoak: Noemi (OÑATI) eta  
Iñigo (Bergara). Argazkian, Ane  
jaioberria, amama Luisarekin.



ARRASATE  
**Pilar Larrañaga**  
**Zeiaga**  
Abuztuaren 28an.  
Zorionak ama!  
Patxo asko etxeko-  
en partetik!  
Aimar, Oier, Ibai eta  
Jurgi.



ARETXABAleta  
**Julen Gutierrez**  
**Olabe**  
Abuztuaren 29an,  
3 urteko. Zorionak  
eta laztan haundi  
bat etxeko guzion  
partetik.




OÑATI  
**Maialen Barrena**  
Abuztuaren 29an.  
Zorionak eta urte  
askotarako!  
Patxotzaar bat kua-  
drillakuan partetik.



ARETXABAleta  
**Ane Azkarate**  
**Quintana**  
Abuztuaren 30ean,  
8 urte. Zorionak  
eta patxo handi bat  
etxeko partetik!



BERGARA  
**Olaia Unamuno**  
Abuztuaren 22an, 6  
urte. Zorionak prin-  
tzesa! Familia guz-  
tiaren eta bereziki  
Josebaren partetik  
patxo handi bat.



BERGARA  
**Ane Kortabarria**  
Abuztuaren 29an, 7  
urte. Aupa txapel-  
duna! Zorionak eta  
patxo handi bat  
etxeko partetik.



BERGARA  
**Eneko Zamakola**  
**Agirrezabal**  
Abuztuaren 30ean.  
Zorionak eta patxo  
haundi bat etxeko-  
en partetik.



BERGARA  
**Ane Azkarate**  
**Unamuno**  
Irailearen 4ean, 7  
urte. Urte askotara-  
ko etxeko eta  
bereziki Uxueren  
partetik.




BERGARA  
**Iñaki Zubala**  
**Ibarguren**  
Irailearen 2an, 65  
urte. Urte mordo  
bat lan egin eta  
gero, orain disfruta-  
tu! Zorionak familia  
guztiaren partetik.



**ZORIONAK!**  
Zorion itzazu  
jolagunak eta  
senitartekoak  
ASTELEHENeko  
GOIENKARIA-  
ren bidez!



**IKUSI  
MAKUSI**



Umeen  
paradisua

Jone Bergaretxe > Baserritarra

## "Baserritarragotzat daukat nire burua"

**IKER BARANDIARAN > ARRASATE**  
**Jone Bergaretxe Uribarri baserri auzoko alkatea da 1984tik. Baserritarra argindarra, ura eta beste lakoak eramateko lan handia egin zuen eta ia zauzoaren gaineko liburu kaleratu zuen. Filmetan, loretan eta sendabelarretan adituada.**

**Ikusten duzu zure burua baserritik kanpo bizi izaten?**

Ahal bada ez. Mendi puntan biziko banitz edo osasun arazoenengatik izango balitz, ba kalean biziko nintzateke, baina bestela ez. Ni uribarritar baserritar sentitzen naiz, eta gero eta gehiago gainera. Are gehiago, ortua, loreak eta sendabelarrak gero eta gehiago maite ditut.

**Sendabelarren aldean ez da medikurik behar?**

Medikura joan behar denean, joan behar da, baina sendabelarrak prebentzio moduan erabilten ziren eta erabiltzen ditugu, gauza askotarako, gainera.

**Zure baserritik, Gorostizatik, garapena ikusten duzu egunero, ezta?**

Bai, garapena deitzen diotea-edo hemen ikusten dugu. Azkenean ohitu egin gara buelta guztian etxeak izaten. Hala ere, etxeak derrigor egin behar dira. Txarto ikusten dudana da desjabetzeak zelan egiten dituzten: kentzen diotenei aukerak eman behar dizkiote gustura gelditzeko.

### Noiz zaletu zinen zineman?

Aspaldia. 30 bat urtetan zine-klub bat abiarazi genuen herrian, 1964an hasita. San Viatoren, Ideal zineman (gerora Alai izan zena)

### TEST-A

**Herria:** Arrasate. **Adina:** 62 urte.

**Ikasketak:** Ofizialtza, Euskara, Historia, Artea, sendabelarrak...

**Zaletasunak:** Zinema, loreak, musika...

**Film bat?** *Alguien voló sobre el nido del cuco, La diligencia, La huída...* Asko daude. **Musika talde bat?** Bee Gees edo Beatles. Baina etxeak oso gusturaz entzuten ditut abesbatzak eta baita musika gregoriana ere. **Uribarriko auzoalkate noiz arte?** Laster erretiratzeko asmoa daukat, 1984tik nago.

eta Gurea zineman ematen genituen filmak. Baskide bitartez egiten genuen, eta sasoi baten 570 bat izan genituen. Gipuzkoako zaharrenetarikoa eta handiene-takoia izan zen.

### Oraindik baduzu harremanik Espainiako aristokraziarekin?

(Barre) Gabonetan Kolonbiatik Martinez de Irujok, baserriko lehengo jabeak, postala bidaltzen digu. Nire familia 1390tik guxienez izan zen baserriko jabea. Gerora, 1790ean, ez dakiten arrazoiengatik, jabetza Albako duke-saren senar Sotomayorreko dukeak hartu zuen, eta jarraian Martinez de Irujok. Baina, orain dela 30 bat urte baserria berreskura-tu genuen, gurea da berriro.

### Zein da zure lore gustukoena?

Dragoi-muturra (*antirrhinum*). Gladioloen antzekoa da eta zurtoin gogorra dauka, erramuak egiteko aproposa. Kolore asko ditu, oso biziak, eta izotzak harrapatzan ez badu, bi edo hiru urte bizi daiteke. Hala ere, lore asko ditut gustuko, eurekin ego-ten naiz gustura.



BASERRIAN Loreak dira Bergaretxeren pasioetako bat.

JOSETXO ARANTZABAL

### ai, ene!



### Jackson egiptoarra

Antzinako Egiptoko irudia da goikoa; baina, ez esan ez due-nik gaur egungo Michael Jacksonen antza! Egubakoitzean bete zituen pop musikako erregeak 50 urte. Duda barik, azken urteetan zer esan handia eman duen musikaria da Jackson.

[www.nopuedocrear.com](http://www.nopuedocrear.com)

### biharamuna

Marijo De格acias

## Oporrak amaitu zaizkit, eta zuri?


Zapatu gauean Javier Segade irrati esatarien agurra entzuteko aukera izan nuen. 35 urte egin ditu RNEn, hasieran efektu berezien teknikari legez eta azkeneko urteak Vive la noche asteburuko irratsaiko zuzendari legez. Goizean Arnaldo Otegiren agurra entzun nuen, Martutenetik atera berri zen 15 hilabeteko espetsxe zigorra bete ostean.

Abuztu amaiera den ezkerro, asko izan gara udako oporreai agur esan beharra izan dugunok; eta ikasturte berria hasteko orduan ere agurtzen zaituztet Asteleheneko Goienkariko lankideei eta hau irakurtzen ari zatenen guztiei. Hala iruditzen zait neri, agurtze-

ko sasoia izan dela abuztukoa. Olinpiar jokoak agurtu gintzuten oporretan giñela eta guk agurtu genituen gero Phelps, Bolt eta konpainia. Hura igarota Marijaia agurtu nuen eta Aitor Elizegi pregoilariarekin ere ateria genuen argazkia. Barikuam amari urtebetetze oparia ematen izan nintzen Antzuolan eta agurtu nituen: Silvia, erditzea zela; Lierni, ilea luze-luze daukadala gogorarazi zidan; Marijo eta Ramon, zuritoa hartzen genuen bitartean... Igartzen zen oporrik agurtu genituela, Zurrategiko kiosko bueltan jende mordoa zebilen. Agur oporreai bada; agurtu dezagun ikasturte berria, irailaren lehena eta astelehena bada ere.



### eguraldia



MAXIMOA

+30

MINIMOA

+15

Astea zirimiri eta temperatura baxuekin hasiko dugu. Goizean euria egingo du baina arratsaldean ostarteak zabalduko dira.

[www.euskalmet.net](http://www.euskalmet.net)

**Euskal soinu eta irudiak zure eskura!**

**ABESTIEN** POLIFONIKOAK (2 sms)  
Abestien izena (Abeslaria) | **KODEA**

**Pop-Rock**  
Aitormena (Hertzainak) | **AITORMENA**  
Aizkolari (Kortatu) | **AIZKO**  
Amore amore (Karidadeko benta) | **AMORE**  
Askatasun egarri (Lin Ton Taun) | **ASKATA**  
Begiak otertua (Lin Ton Taun) | **BEGIAK**  
Bi Minutuero (Hertzainak) | **BIMINU**  
Dub manifest (Fermín Muguruzal) | **DUB**  
Egunero (Hertzainak) | **EGUNERO**  
EH Sukarri (EH Sukarrak) | **SUKAR**  
Els dices mierda, nosotros amén (La Polla) | **ELLOS**  
Enamorado de la muerte (RIP) | **ENAMO**  
Entzuidazu (Ateking's) | **ENTZU**  
Etorikzuna (Etsaiak) | **ETORKI**  
Ezer ez da betiko (Ken) | **EZER**  
Gora Hernia (Negu Gorriak) | **GORA**

**SOINUAK:** Bidali, GIPE hutsunea  
**ABESTIAK:** Bidali, GIPP hutsunea  
**LOGOAK:** Bidali, GIPL hutsunea  
**JOKOAK:** Bidali, GIPJ hutsunea

**5767**  
zenbakira

SMS bakotzeko:  
1,2 € + BEZA

**WEBGUNEAN** → [www.smsoinu.com](http://www.smsoinu.com)

### ABESTIEN

POLIFONIKOAK (2 sms)

Abestien izena (Abeslaria) | **KODEA**

Hator Bel-Air (Bide Ertean) | **BELAIR**  
Haizea (Ken7) | **HAIEZA**  
Hegal eginet (Itzoi) | **HEGAL**  
Iku (Delirium Tremens) | **IKUSI**  
Iargin (Ken7) | **KEN**  
Inpernuen ate ioka (Gatibú) | **INPER**  
Jokin Uraini Hitzaik (Bide Ertean) | **JOKIN**  
Kaiko (Ur7) | **KAXO**  
Lau Telatu (Itzoi) | **ITOIZLAU**  
Laztana (Latzen) | **LAZTA**  
Lotuta egon arren (Kokein) | **LOTUTA**  
Loretxoa (EKXKU) | **LORE**  
Marea Gora (Itzoi) | **MAREA**  
Musturrek sartunde (Gatibú) | **MUSTURREK**  
Nicaragua (Kortatu) | **NICA**

**SOINUAK:** Bidali, GIPE hutsunea  
**ABESTIAK:** Bidali, GIPP hutsunea  
**LOGOAK:** Bidali, GIPL hutsunea  
**JOKOAK:** Bidali, GIPJ hutsunea

**KODEA:** KODEA  
**KODEA:** KODEA  
**KODEA:** KODEA  
**KODEA:** KODEA

**5767**  
zenbakira

SMS bakotzeko:  
1,2 € + BEZA

**SMSSOINU**  
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

### LOGOAK (2 sms)

**KODEA**

**ZINEMA**   
**AIZKORAK**   
**GLOBUAK**   
**ZORIONAK**   
**NIREKIN**   
**SORGINGA**

**OHARRAK**  
1.BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarrirria den eskanteria ditugun produktuetkin, helbidea honetan: [www.smsoinu.com/bateragari](http://www.smsoinu.com/bateragari)

Bertan jasoko duzu beharrezko duzen informazio guztia.

2.BALDINTZAK: Edukatik eskuratzeko, beharrezko da GPS sistemaren aktibitatea izatea, GPS sistema aktibatzeareko, jar zaitez zuen hornitzailearekin harenmanetan. Alia ematea doan da eta K3 jitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu, K3 guztietan deia eta GPS sistemaren alia ematea doan dira.

\* Euskalbel dejan 900.91.00.00 telefonora, \* Vodafone: deju 123 m, \* Movistar: deju 603 m.

3.ZALANTZAK: Ez doztena zalarazia duzula, jarri gurekin kontaktuan: [smsoinu@smsoinu.com](mailto:smsoinu@smsoinu.com) / edo deju 902.01.21.40 telefonora.

4. PERSONALIZAZIOAK: Zure neurria egin ditzakegi abesti eta logoak. Webgune honetan kalentzu eta grabatzaleek eskura dezaketa nahi baduzu, jarri gurekin harenmanetan eta deitu 902.01.21.48 telefonora.